

Euskaltzaindiaren
Oroit-Idazkia
1990



Memoria
1990
Real Academia de la Lengua Vasca
Euskaltzaindia







EUSKALTZAINDIA
AZKUE BIBLIOTEKA



Euskaltzaindiaren
Oroit-Idazkia
1990

Testu idazketa: J. L. Lizundia
Testu gainbegiratzen: J. M. Satrustegi
Makinatze lana: Itziar Rekalde eta Begoña Amundarain

© Euskaltzaindia

Elkano, 5. 48001 Bilbo

Fotokonposaketa: Rali, S. A.

Particular de Costa 12-14. 48010 Bilbo

Inprimategia: Elkar, E. Koop. grafikagintza.

Autonomia, 71 - 48012 Bilbo

Legezko Gordailua: BI-1657-1991

AURKIBIDEA

| | |
|--|----|
| 1. Ekintza Orokorrak | 9 |
| 1.1. Bilkura eta akademi bilerak | 11 |
| 1.2. Osoko bilkuretako erabaki zenbait | 13 |
| 1.3. Baltzarre txostenak | 14 |
| 1.4. Gertakari akademiko eta ekintza ordezkarri zenbait .. | 15 |
| 1.5. Euskaltzaindiko Batzordeen organigrama | 18 |
| 2. IKER Saileko Batzordeak | 23 |
| 2.1. Hiztegegintza batzordea | 25 |
| 2.2. Gramatika batzordea | 30 |
| 2.3. Dialektologia batzordea | 32 |
| 2.4. Onomastika batzordea | 41 |
| 2.5. Literatura batzordea | 43 |
| 3. JAGON Saila | 49 |
| 4. Akademi Zerbitzuak | 53 |
| 4.1. Egoitza eta ordezkaritzak | 55 |
| 4.2. Azkue Biblioteka | 56 |
| 4.3. Argitarapenak | 60 |
| 4.4. Itzulpen eta kontsulta zerbitzua | 63 |
| 4.5. Etsaminak | 64 |
| 5. Ekonomia | 65 |
| 5.1. Diruzaintza | 67 |
| 6. Aurkitegia | 69 |

Euskaltzaindiak ongi burutu du 1990.urterako egitarau orokorrean hitz emandako akademia eginkizunen kopurua.

Gauza berririk aipatzekotan, agintariekiko lotura teknikoetan prozedura berdintzea, izango litzateke. Urteko ekintzen ohizko kontu-errendatzeko modua- ren ordez, aginte publikoek euren hartu-emanetan ohi duten egitura erabiltzera mugatzen du Euskaltzaindia elkarrekin izenpetutako Hitzarmenak. Hori dela eta, orain arte ematen ziren urteko aurrekontu eta urte amaierako gastuen agiriez bes- talde, Diruzaintzak lau hilabetero behar du gastuen azalpena aurkeztu, eta Idazka- ritzak halaber denbora horretan egindako akademia lanen zehaztasunak eman be- har ditu, Jarraipen Batzordeak azter ditzan.

Urte osorako helburuak zatika aztertu beharrak batzorde lanen abiada mu- gatzen du noski, eta batzutan ezin da zatiketa soilaren neurria behar bezala neurtu. Denbora berean, eginkizun merkatalgokoa balitz bezala, zeregin berria sortzen dio ikerlanen berezko abiadari. Batzorde idazkariak ahalegindu dira egoera be- rriari buru ematen eta jarraipenean ohiturak arinduko ditu eragozpenak.



1. Ekintza Orokorrak

1.1. BILKURA ETA AKADEMI BILERAK

Euskaltzaindiak bere hilero batzar arruntak 1990. urtean era honetara egin ditu, hots: sei hilabetetakoak, Gipuzkoako Foru Diputazioan; eta besteak, otsailekoak, Bizkaiko Foru Diputazioan; apirilekoak, Zarautzen (Gipuzkoa); ekainekoak, Aralarren; irailekoak, Lizarran (Nafarroa); eta abendukoak, Andoainen (Gipuzkoa).



Garagorri baserria

Zuzendaritza gehinetan, gutxienez, bigarren ostiraletan bildu da eta batzordeek, euren aldetik, lanaren arabera, bere bilkura egutegia bete dute.

Ohizko bilkurez gain, zenbait mendeurren eta ospakizun ospatu dira Jardunaldi, batzar-ireki eta antzekoak antolatuz, alegia:

– Otsailaren 23an, hiru ospakizun egin dira Bizkaiko Foru Diputazioan: Pedro Novia de Salcedo, bizkaitar euskaltzalearen mendeurrena; Mikel Arruza, euskaltzain urgazlearen jaiotza ehunurteburua; eta Gabriel Manterola, euskaltzain ohorezkoarena ere. Gertakari honetan hasiera eta amaierako partaideak: Tomas Uribeetxebarria, Bizkaiko Kultur foru diputatua eta Jean Haritschelhar, euskaltzainburua. Hizlariak, beste hauek: Alfonso Irigoien, euskaltzainak "Pedro Novia de Salcedoren oroigarritz" txostenarekin; Eusebio Erkiaga, euskaltzainak "Miguel

Arruza Egia 1890-1966" gogoratu du; eta Juan San Martin, euskaltzainak "Don Gabriel Manterola, mendeurrenko oroitza" oroitza eskaini dio.

– Apirilaren 20 eta 21ean, Zarautzen, Gregorio Arrue euskal idazlearen heriotzeko mendeurren ospakizun batzar irekiaz gain, hileroko bilkura eta XI. Lexikologi Jardunaldiak egin dira, azkenengo biok "Sanzenea" Kultur Etxean, eta irekia Udaletxean. Gregorio Arrueren omenez, hasierako Antonio Alberdi herriko alkatearen eta euskaltzainburuaren sarrera hitzaldiñoen ondoren, txosten hauek eman dira: "Gregorio Arrueren biografia" izenduna, A. Karmelo Iturriak; "Gregorio Arrueren Santa Genobebaz beste zerbaite" izenekoa, Maite Etxaniz, Zarauzko Euskara Udal Zerbitzu arduradunak; eta "Gregorio Arrue Mazoren lehen itzultzailea" gaiaz, Jose Antonio Arana Martija, euskaltzainak.

– Ekainaren 28 eta 29an, Aralarko Santutegiko ostatuan, Euskaltzaindiak aurreko urtean, Gasteizen, hasitako Jardunaldi berri batzuren bigarren saioa egin du, hots: Programa Jardunaldiak, zeinetan hurrengo urtean eginkizun izango dituen lanak programatu dira. Xehetasun berezi bi aipatzekotan, Literatura Klasikoren azpibatzerdea suntsitzea eta Literatura Ikerketakoa martxan jartzea izan dira. Gainontzean, 1991.eko ekintzen programazio orokorra, batzordez batzorde, burutu da.



Euskaltzaindia Aralarren

– Irailaren 25etik 29ra, Euskaltzaindia Lizarrerrian izan da, Merinaldeko hiriburuaren Foruaren 900. urtemuga egitarau orokorraren barnean. 25ean, Zuzendaritza eta dagokion batzordea bildu dira; 26, 27 eta 28an, III. Onomastika Jardunaldiak "Fray Diego de Estella" Kultur Etxean; 28 arratsaldean, euskaltzainen hileroko bilkura eta ospakizuneko batzar irekia, azken honetan, Juan Andres Platero, hiriko zinegotziaren, Aladino Colín, Nafar Gobernuko Lehendakari eta Sai-

leko kontseilariaren eta Jean Haritschelhar, euskaltzainburuaren hasiera edo amaierako hitzaldiñoez gain, gai azpimarragarrienak hauek izan direlarik: Jose Maria Satrustegi, euskaltzainaren "Euskararen eboluzioa Lizarra merinaldean/ Evolución de la lengua vasca en la merindad de Estella" izeneko hitzaldia; Endrike Knörr, Onomastika batzordeburuak Jose Maria Jimeno Jurio batzordekidearen *Toponimia de la cuenca de Pamplona. Cendea de Iza*, azken liburukiaren aurkezpena eta Knörr euskaltzainak berak, III. Jardunaldien ondorio azalpena.

– Abenduaren 15, 21, 22 eta 23an, Andoainen, Manuel Larramendiren jaiotzeko III. mendeurrenkari, ekintza hauek antolatu ditu Euskaltzaindiak. 15ean, III. Gramatika Jardunaldiak; 21ean, euskaltzainen hileroko bilkura eta Zuzendaritza berritze bilera berezia; 21 eta 22an, XII. Lexikologi Jardunaldiak; 23 goizean, "Garagorri" baserriko Larramendiren jaiotetxean ospakizun labur bat, bertan agintari, Euskaltzain, bertsolari eta herritar andana bat izan delarik; eta eguerdian, Udaltxean, mendeurrenoko batzar irekia. Azken honetan, partaide hauek izan dira: Carlos Sanz Diez de Ure, herriko alkatea; Imanol Murua Gipuzkoako Diputatu Nagusia; Joseba Arregi, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kontseilaria eta Jean Haritschelhar euskaltzainburua alde batetik; eta bestetik, bi hizlari, Patxi Altuna "Larramendiren haurtzaroko albiste berriak" txostenarekin eta Jose Ignacio Telletxea Idigoras euskaltzain urgazlea "Larramendi: un guipuzcoano transplantado y vuelto a implantar" izeneko hitzaldiarekin.

1.2. OSOKO BILKURETAKO ERABAKI ZENBAIT

1990. urtean aipagarri daitezke beste erabaki akademiko solte zenbait, alegia, batzordeez landa, hileroko euskaltzainen osoko bilkuretan landutakoak zenbait. Kasu honetan garrantzitsuenak, hauek lirateke:

– BEZ/IVA izeneko zerga inprimakien testu osoaren euskal itzulpenak aztertu eta onartu dira, Euskal Herriko lau Foru Ogasunetarako -Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa- baliagarritasun ofizial berbera izan dezaten.

– Letra larrien edo maiuskulen erabilpena arautzeko, batzordeñoak lana prestatu ondoren, eta euskaltzainen emendakinak kontutan izanda, Euskaltzaindiak onartu eta finkatu ditu letra horien idaztarauak.

– Azaroko batzarrean, Arantzazuko Biltzarraren 25. urtemuga 1993an beteko dela eta, euskararen bikoiztasun, kontraesan eta bideratu gabeko arazoak arautzeko edo egiteke daudenek garatzeko parada litzatekeela ikusi da, horretarako Biltzar bat iragarri eta prestakizunekin hasteko batzorde berezi bat sortzea erabaki delarik.

– Nafarroan FM-ko irrati baimenak banatukeran, euskal irrati biren eskariak Nafarroako Gobernuan baztertu dituela eta, komunikabideetara salakuntzazko adierazpen bat igorri da urriko batzarrean.

– Nafarroako Herri Unibertsitatean Magisteritzako euskarazko adarra kentzea sortu duen kezka adierazi da azaroan.

– Arabako zenbait taldek euskarari buruz plazaratutako aburu eta aldarrikapenei erantzunez, Jagon Sailak eta Arabako euskaltzain oso, ohorezko eta urgazleek egindako adierazpena birretsi da.

1.3. BATZARRE TXOSTENAK

Hileroko batzarretan dagozkien txosten akademikoak izaten dira, bai arruntetan, gai solte ala librean, eta bai mendeurren edo bestelako ospakizun bat denean. Gai akademikoak izaten dira gehienetan, hizkuntza, ikerkuntza edo literaturari lotuak.

Gai solteetan, 1990. urtean emandako txostenetan hauek azpimarra daitezke:

– “Oroitzapen purruxken purruxkak”, Xabier Diharce “Iratzeder” euskaltzainak aurkeztua.

– “Botanika lexikoa Eibarren”, Juan San Martin, euskaltzainak.

– “Lehatxun, tripot, ez adiorik: Euskal Atlasaren bilketaren informatizatzeko bidean epantxu zenbait”, Xarles Videgain, Euskalki Ikerketa azpibatzaileen idazkariak.

– “Erdal hitzen mailegatzea Iparraldeko euskaraz”, Txomin Peillen, euskaltzainak.

– “Gaskoniako okzitanoarengandikako maileguak euskaraz”, Peillen jaunak berak.

– “Hain egunetan eta hain ordutan”, Alfonso Irigoien, euskaltzainak.

– “Noiz hil zen Axular?”, Endrike Knörr, euskaltzainak.

– “EIZIE Nazioarteko Itzultzaileen Federazioan”, Josu Zabaleta, elkarte horretako arduradunak”.

– “Zein da euskaldunen juddamendu estetikoa”, Federiko Krutwig, euskaltzainak.

– “Egungo Euskararen Bilketa Sistematikoko proiektuaren oinarritzko erizpide eta emaitzen aurkezpena”, Andoni Sagarna, EEBS azpibatzaileen idazkariak.

– “Louis-Lucien Bonaparte printzearen bibliografia”, Jose Antonio Arana Martija, euskaltzainak.

Mendeurren, sarrera-hitzaldi eta gainontzeko gertakizun berezietan emandako txostenak ez dira zertan sail honetan errepikatu, dagozkien lekuetan aipatuak izango bait dira.

1.4. GERTAKARI AKADEMIKO ETA EKINTZA ORDEZKAGARRI ZENBAIT

1990. urtean izan diren gertakari akademiko solte nagusien aipamena egiten da sail honetan, beste erakunde batzuren ekintza garrantzitsu zenbaitetan Euskaltzaindia ordezkatu denaren albistea ere emanaz.

Urtarrila

— 26an, Xenpelar bertso paper sariak banatu zaizkie: lehenengoa, Jose Antonio Gesalaga "Zaldubi"ri, *Aitona zaharra* izeneko lanagatik; bigarrena, Xanti Zabala "Lezo"ri, *Gogoetak* lanagatik; eta hirugarrena, Antton Kazaboni, *Esnatzera-koan* bertso paperengatik.

Martxoa

— 16an, Euskaltzaindiko Zuzendaritza, (EUEDEL) Euskal Herriko Udalen Elkarteko Buruzagitza Iraunkorrekoekin bildu da, hots: Jose Antonio Zorrilla, Musikoko alkatea eta EUEDELeke lehendakaria; Jesus Gonzalez Sagredo, Trapagarango alkatea; Sabin Intxaurre, Zeanuriko alkatea; Kepa Korta, Ordiziako alkatea eta Biktor Mentxakatorre, Elkarteko gerentearekin. Tratatutako gai nagusiak, udal mailako euskararen ikerketa eta jagote mailako eginkizunak izan dira, hala nola: tokiko hizkera, toponimia, euskara zerbitzu eta beste.

— 16an, egun berean, Zuzendaritzak, Elkanoko langileak bertan zeudelarik, Xabier Gereño euskaltzain urgazle, euskal idazle oparo eta urteetan Euskaltzaindiko kontalari izandakoari, adinagatik jubilatatu ondoren esker on gisa omeneko diploma bat eman dio.

Apirila

— 1n, Jean Haritschelhar, euskaltzainburua; Endrike Knörr, Jagon sailburua eta Jose Luis Lizundia, Jagon saileko idazkaria, Belgikan izan dira Taalunie Holanda eta Flandesen arteko nederlanderaren hizkuntz erakundearen berri jakiteko.

— 18an, Endrike Knörr, Jagon sailburua eta Juan San Martin, euskaltzainak, Enrique Mugica Justizia ministroarekin elkarrizketa bat izan dute euskal deituren grafia legez aldatzeaz eta euskararen presentzia Justizia Administrazioan bideratu nahian.

— 22an, Elizondoko herriak Mariano Izeta euskaltzain urgazleari egindako omenaldian, Pierre Charriton euskaltzainak ordezkatu du Akademi erakundea.

Maiatza

– 5ean, Juan Goikoetxea "Gaztelu" urgazle zenduari Gazteluko herriak egindako omenaldian, Juan Mari Lekuona buruordeak ordezkatu du Euskaltzaindia.

– 11n, Zuzendaritzako bilerarekin batera eta bere izenean Jean Haritschelhar euskaltzainburuak, Jose Agustin Arrieta, Herri Batasuneko Mahai Nazionaleko Euskararen arduraduna hartzen du, honek, euskarari dagozkion bere proposamenak ematen dizkiolarik.

– 11, egun berean, Jose Ramon Beloki, *Euskarazko Egunkaria*-ren proiektua Zuzendaritzari azaltzera etorri da.

– Jean Hiriart-Urruti, euskaltzaina hil da Baionan. Haren hilberri txostena Emile Larre, euskaltzainak, ekaineko hileroko batzarrean eman du.

– Marcelino Garde, nafar euskaltzain urgazlea hil da. Bere bizitza eta lanei buruzko txostena Jose Mari Satrustegi, euskaltzainak egin duelarik.

– 25ean, Gipuzkoako Foru Diputazioan, hileroko batzarrarekin batera, *Mapa Soziolinguistikoaren* aurkezpena egin da, hizlariak hauek izan direlarik: Mikel Ugalde, Euskararen Aholku Batzordeko bateragilea; Jose Luis Lizundia, Batzorde horretako Demolinguistikako atalburua; eta Xabier Aizpurua, Hizkuntza Politikarako Idazkaritzako teknikaria.

Ekaina

– 8an, euskaltzainburua eta Jagon sailburua, Euskadiko Ezkerrako buruzagiekin bildu dira, Donostian, euskararekiko alderdi honen programa eta kezkak entzuteko.

– 15ean, Zuzendaritza, Iñaki Zabaleta eta Jesus Mari Zalakain, *Egunkaria Sortzen* taldekideekin bildu da.

– 26tik uztailaren 5era, Endrike Knörr, Jagon sailburua eta Patxi Goenaga, Gramatika batzorde idazkaria, Georgiara, hango Jakite Akademiak gonbidaturik, Euskaltzaindiaren ordezkaritza eraman dute. Besteak beste, Linguistika Institutuan bi hitzaldi eman dituzte.

Uztaila

– Gotzon Aurrekoetxea eta Xarles Videgain, Euskal Herriko Hizkuntz Atlasgintzako arduradunek ikastaro bat eman dute *Sü Azia* Mauleko elkarteak eskatuta, Zuberoako kantu zaharren bilketa egiteko.

– 10ean, Bilboko "Hotel Ercilla"n alfabetatzearen nazioarte mailako urtea dela eta, UNESCO, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Euskaltzaindiaren babespean eratutako *Letrakit* kanpainaren inaugurazioa izan da. Bertan, zenbait euskaltzain oso, ohorezko eta urgazle egon dira eta Jean Haritschelhar, euskaltzainburua, hasierako hitzaldia eman du. Ekintza hau urte osoan Euskal Herriko zazpi herrialdeetatik zehar ibiltari arituko da.

– 12tik 15era, Kataluñako Reus hirian, Tarragonako Diputazioaren babespean egindako "Col.loqui sobre cançó tradicional" delakoan Antonio Zavala, euskaltzain eta Herri Literatura azpibatzaileak ordezkatu du Euskaltzaindia.

– 16an, Bedita Larrakoetxea, euskaltzain ohorezko bizkaitarraren hil berria eman da. Haren bizitza eta lanez Jose Antonio Arana Martija, euskaltzainak, egin du txostena.

Iraila

– 20tik 23ra, Probentzako Unibertsitatean egin diren Ikerketa Jardunaldi batzuetara Xarles Videgain joan da, Euskal Herriko Hizkuntz Atlasgintzarako interesgarria suertatu baitira.

– 28an, euskaltzain osoek eta zenbait urgazlek Lizarrako ikastola bisitatu dute, bertako Zuzendaritzak gonbidaturik.

– 28an, Jean Hiriart-Urruti euskaltzain zenduaren hutsartea betetzeko bozketa egin da. Lehen itzulian gehiengo nagusia bereganaturik, Beñat Oihartzabal izendatu da euskaltzain oso.

– Justo Garate jaunari Argentinako Cuyo Unibertsitateak eta Mendoza hirian dagoen Espainiako Kotsul Orokorrek egindako omendaldia dela eta, Euskaltzaindiak bere atxikimendua agertu dio euskaltzain ohorezko duenari.

Urria

– 13tik 16ra, Jean Haritschelhar, euskaltzainburua, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusiko Josean Urdangarin teknikariarekin batera, Israelera joan da hebraiera modernoaren mendeurrena ospatzeko, Nazioarteko Hizkuntz Biltzar batetara, hain zuzen "International Conference on Language Revival" izenekora. Euskaltzainburua hitzaldi bat eman du "Dialectes et standardisation: le cas de la langue basque" izenduna.

– 14an, Jose Maria Satrustegi, Nafarroako ordezkari bezala, Lizarran egindako Nafarroa Oinez, ikastolen jaialdian izan da.

– 27an, Jose Antonio Arana Martija, euskaltzaina, Madrilgo Biblioteka Nazionalaren Patronatoko bilkuran izan da Euskaltzaindiaren izenean, erakunde horretako kide baita.

Azaroa

– 15etik 17ra, Jean Haritschelhar, euskaltzainburua eta Endrike Knörr Ja-gon sailburua, "Comission des Communautés Européens" delakoak Strasburgen antolaturiko biltzarrean izan dira, bertan Knörr jaunak txosten bat aurkeztu duela-rik.

– 24an, Hondarribiko Udaletxean, Klaudio Otaegi idazlearen mendeu-rrena dela eta egindako ospakizunean zenbait Euskaltzaindiko izan dira, Jean Ha-ritschelhar, euskaltzainburuak hitzaldi bat eman duelarik.

Abendua

– 6an, Gerediaga Elkarteak gonbidaturik, Jean Haritschelhar, euskal-tzainburuak Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokaren zilarrezko ezteietan, Euskaltzaindiaren ordezkaritza eraman du.

– 21ean, Euskaltzaindiko Zuzendaritza berriztatzeko arauzko bozketak egin dira, karguak honela gelditu direlarik:

Euskaltzainburu: Jean Haritschelhar.

Buruorde: Juan Mari Lekuona.

Idazkari: Jose Mari Satrustegi.

Diruzain: Jose Antonio Arana Martija.

1.5. EUSKALTZAINDIKO BATZORDEEN ORGANIGRAMA

VII. Barne Jardunaldietan osotutakoa:

IKER SAILEKO BATZORDEAK

Iker sailburu: Luis Villasante

I. Hiztegegintza

Batzordeburu: Ibon Sarasola

Idazkari: Mikel Zalbide

Batzorde hau hiru azpibatordetan banatzen da:

I.1. Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)

Arduradun: Ibon Sarasola

Idazkari: Iñaki Seguro

Kideak: Arantza Egia, Gabriel Fraile, M.^o Jose Kerexeta, Elixabet Kruzeta, Blanca Urgell, Eduardo Valencia.

I.2. Lexikologi Erizpideen Finkapena (LEF)

Arduradun: Miren Azkarate

Idazkari: Jose Antonio Aduriz

Kideak: Patxi Altuna, Juan Carlos Odriozola, Andoni Sagarna, Martxel Ensunza, Patxi Goenaga, Jose M.^o Larrarte, Luis Mari Mujika, Lourdes Otaegi, Beñat Oihartzabal, Patxi Uribarren, Tomas Uribeetxebarria, Patri Urkizu.

I.3. Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa (EEBS)

Arduradun: Andres Urrutia

Idazkari: Andoni Sagarna

Kideak: Jose Antonio Aduriz, Claude Harlouxet, Jazinto Iturbe, Jose Mari Larrarte, Mikel Lasas, Eneko Oregi, Lourdes Otaegi.

II. Gramatika

Buru: Patxi Altuna

Buruorde: Pello Salaburu

Idazkari: Patxi Goenaga

Idazkariorde: M.^o Pilar Lasarte

Kideak: Lino Akesolo, Miren Azkarate, Pierre Charritton, Andolin Eguzkitza, Jean Haritschelhar, Alan King, Jose Mari Larrarte, Jesus Mari Makazaga, Jose Antonio Mujika, Beñat Oihartzabal, Karmele Rotaetxe.

III. Dialektologia

Buru: Francisco Ondarra

Batzorde hau bi azpibatxordetan banatzen da:

III.1. Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa (EHHA)

Arduradun: Jean Haritschelhar

Idazkari teknikoak: Gotzon Aurrekoetxea eta Xarles Bidegain

Kideak: Isaac Atutxa, Ana Maria Etxaide, Jose Mari Etxebarria, Izaskun Etxebeste, Koro Seguro.

III.2. Euskalkien Ikerketa Arruntak (EIA)

Arduradun: Txomin Peillen

Idazkari: Xarles Bidegain

Kideak: Gotzon Aurrekoetxea, Ana Maria Etxaide, Jose Mari Etxebarria, Iñaki Gaminde, Alfonso Irigoien, Rosa Miren Pagola, Karmele Rotaetxe.

IV. Onomastika

Buru: Endrike Knörr

Buruorde: Alfonso Irigoien

Idazkari: Jose Luis Lizundia

Kideak: Ricardo Cierbide, Jose Antonio Gonzalez Salazar, Mikel Gorrotxategi, Andres Iñigo, Jose Mari Jimeno Jurío, Jean Baptiste Orpustan, Patxi Salaberri, Juan San Martin, Jose Mari Satrustegi.

V. Literatura

Buru: Juan Mari Lekuona

Batzorde hau bi azpibatxordetan banatzen da:

V.1. Herri Literatura

Arduradun: Antonio Zavala

Idazkari: Pello Esnal

Kideak: Jose Mari Aranalde, Antton Aranburu, Jesus Mari Etxezarreta, Alfonso Irigoien, Jose Mari Iriondo, Mixel Itzaina, Emile Larre, Abel Muniategi.

V.2. Literatura Ikerketa

Arduradun: Juan Mari Lekuona

Idazkari: Jon Kortazar

Kideak: Xabier Altzibar, Aurelia Arkotxa, Gorka Aulestia, Pierre Charritton, Gotzon Garate, Jean Haritschelhar, Jon Juaristi, Jesus Mari Lasagabaster, Luis Mari Mujika, Jean Baptiste Orpustan, Juan Otaegi, Txomin Peillen, Ana Toledo, Bittor Uraga, Patri Urkizu.

JAGON ETA EGITURAZKO BATZORDEAK

VI. Jagon Saila

Buru: Endrike Knörr

Idazkari: Jose Luis Lizundia

Kideak: Jose Antonio Arana Martija, Ramuntxo Camblong, Pierre Charritton, Andres Iñigo, Xabier Kintana, Juan Mari Lekuona, Juan Antonio Letamendia, Jose Mari Satrustegi, Andres Urrutia, Jose Mari Velez de Mendizabal, Patxi Zabaleta, Mikel Zalbide.

VII. Azkue Biblioteka

Buru: Pello Salaburu

Arduradun/Idazkari: Jose Antonio Arana Martija

Ekonomi eragilea: Juan Jose Zearreta

Kideak: Federiko Barrenengoa, Jon Bilbao, Juan Angel Etxebarria, Juan Luis Goikoetxea.

VIII. Argitalpenak

Buru: Jean Haritschelhar

Eragile/Idazkari: Ricardo Badiola Uriarte

Kideak: Juan Mari Lekuona, Jose Mari Satrustegi, Jose Antonio Arana Martija, Luis Villasante, Endrike Knörr, Pello Salaburu, Patxi Altuna, Pierre Charritton.

IX. Juridikoa

Buru: Jean Haritschelhar

Idazkari: Jose Luis Lizundia

Kideak: Jose Antonio Arana Martija, Juan Mari Lekuona, Abel Muniategi, Jose Mari Satrustegi, Andres Urrutia, Patxi Zabaleta.

BATZORDE SUNTSIKORRAK

Bonaparteren mendeurrenekoa

Buru: Jean Haritschelhar

Akademi azpibatzerdea

Luis Villasante, Francisco Ondarra, Txomin Peillen, Beñat Oihartzabal, Jacques Allières, Xarles Videgain, Rosa Miren Pagola, Gotzon Aurrekoetxea, idazkari.

Antolakizun azpibatzerdea

Juan M.^o Lekuona, Jose Mari Satrustegi, Jose Antonio Arana Martija, Endrike Knörr, Juan Jose Zearreta, Ricardo Badiola, Jose Luis Lizundia, idazkari.

Euskara Batukoa

Buru: Luis Villasante

Idazkari: Pello Salaburu

Kideak: Patxi Altuna, Pierre Charritton, Ibon Sarasola.

2. IKER saileko batzordeak

2.1. HIZTEGIGINTZA BATZORDEA

Batzorde honek hiru azpibatzerde ditu, hots:

2.1.1. Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)

2.1.2. Lexiko Erizpideen Finkapena (LEF)

2.1.3. Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa (EEBS)

2.1.1. *Orotariko Euskal Hiztegia* azpibatzerdea

Orotariko Euskal Hiztegia ohizko lan eta egitekoei lotu zaio 1990-eko urtean ere, hots, euskararen hitz-altxorren biltze eta aztertze-lanari.

1990 urteko emaitza nagusia Hiztegiaren 4. liburukiaren argitaratzea izan da, BAR-BERP zatia besarkatzen duelarik. Lehen begi-kolpe batean, hitz-zati horiei oharu eta beste gabe, irudi baluke ere oso tarte ttikia hartzen duela 4. liburuki honek, kontuan izan behar da bitarte horretan aurkitzen diren hitz askotxoren garrantzi berezia eta baita zailtasuna ere: gogoan har, adibidez, *bat*, *behar*, *begi*, *bera...*, larrienak baizik ez aipatzeko,

Bestalde, bereziki aipatu beharrekoa da 1990 urtean lortu dela Mitxelenak urteetan zehar bildutako hiztegi-langaien eta fitxen ordenadoreratzea bukatutzat ematea. Horretarako, 1990 urtean 18.740 fitxa sartu dira ordenadorean.

1990-eko lanen zehaztapena

(Burututako lan desberdinen azalpen zehatz eta xeheagoa eranskin modura gehitzen diren orrietan ikus daiteke).

Erredakzioa

Behin-behineko lehen erredakzioari dagokionez esan behar da irailaren erdi-aldera bukatu zela 5. liburukiari dagokion partea (857 orr. inguru), gutxi gora behera BERR-BURN zatia hartzen duena.

Irailetik aurrera, beraz, 6. liburukiaren oinarrizko lana da landu dena, abendura bitartean 274 orrialde aurreratu direlarik, ia *D* letra bukatzeraino.

Testu zuzenketa

Adibideen konprobatze eta zuzentze lanari dagokionez, 4. liburukiari zegokiona uztail aldera amaitu da, eta ordutik aurrera 5. liburukiarekin hasi.

Sarrera-buruen zuzenketa eta koordinatzaileen aldaketak makinaratzea abuztuaren hasieran bukatzen da; koordinatzaileen zuzenketak berriz irailaren hasieran bukatzen dira, urriaren azken aldera 4. liburukia bukatutzat eman eta kaleratzeko prest jartzeko. Azaroaren aurrenean hasten da 5. liburukiari dagokion parte aurreratzen.

Koordinazio eta zuzenketa

Bi koordinatzaileen lehenbiziko zuzenketa lana, 4. liburukiari dagokionez, 1989-ko abenduan hasten da eta 1990-eko abuztu hasieran amaitzen. Irailean egiten dira 2. zuzenketak eta urrian amaitzen da kaleratzeko prest jartzeko lana.

Abenduan hasten da, berriz, 5. liburukiari dagokion partearen zuzenketa.

1. ERANSKINA

ERREDAKZIOA

| 5. Liburukia | | Guztira | | |
|--------------|---------------------------------------|--------------|--------------|-----------|
| 89.10.30 | | 300 orrialde | | BERR-BIDA |
| 90.04.30 | 31.616 lerro: 85 lerro/orrialde | 371 orrialde | 671 orrialde | BIDE |
| 90.05.31 | 4.250 lerro: 85 lerro/orrialde | 54 orrialde | 725 orrialde | |
| 90.07.05 | 4.624 lerro: 85 lerro/orrialde | 55 orrialde | 780 orrialde | |
| 90.08.08 | 3.120 lerro: 85 lerro/orrialde | 36 orrialde | 816 orrialde | |
| 90.09.13 | 3.470 lerro: 85 lerro/orrialde | 41 orrialde | 857 orrialde | BURNO |
| <hr/> | | | | |
| 6. Liburukia | | | | |
| 90.09.24 | .398 lerro: 85 lerro/orrialde | 17 orrialde | 17 orrialde | BURO |
| 90.10.29 | 5.808 lerro: 85 lerro/orrialde | 68 orrialde | 85 orrialde | |
| 90.11.21 | 10.874 lerro: 85 lerro/orrialde | 128 orrialde | 213 orrialde | |
| 90.12.10 | 5.215 lerro: 85 lerro/orrialde | 61 orrialde | 274 orrialde | DANTZA |

2. ERANSKINA

ZUZENKETAK

| Testu Zuzenketa | | 1 | 2 | Koordinazio eta zuzenketa | |
|-----------------|--------|-------|-----------------|---------------------------|-----------------|
| 89.12.10 | 4.lib. | % 30 | — | — | — |
| | " | — | hasi | hasi | hasi |
| 90.04.30 | " | % 86 | % 40 | % 50 1.zuzenk. | % 20 1. zuzenk. |
| 90.07.05 | " | % 100 | % 60 | % 80 " | % 60 " |
| 90.08.01 | " | — | 1.zuzenk.bukatu | 1.zuzenk.bukatu | 1.zuzenk.bukatu |
| | 5.lib. | hasi | — | — | — |
| 90.08.09 | 4.lib. | — | — | 2.zuzenk. hasi | 2.zuzenk. hasi |
| 90.09.01 | " | — | 2.zuzenketa | 2.zuzenketa | 2.zuzenketa |
| 90.10.29 | " | — | 4.lib. bukatu | 4.lib. bukatu | 4.lib. bukatu |
| 90.11.01 | 5.lib. | % 27 | | | |

Ohar Bibliografikoa

Azkenik esan behar da zenbait testu eta liburu, oraindainokoan zeharkaro bidetik aipatzen zirenak (gehienbat "Diccionario Retana de Autoridades" en bitartez), hemendik aurrera zuzenean sartzen direla, mailebuz lortu eta fotokopiatu egin baitira. Hauen artean aipagarrienak dira:

- *Fedearen propagacioneco urtecaria* (Baiona 1876 eta 1909 bitartean).
- *Argia-ren egutegia* (Donostia 1822 eta 1936 bitartean)
- *Othoizlari aldizkaria* (Beloque, 1954-1973)
- William Rollo, *The Basque dialect of Marquina* (bereziki hiztegia eta testuak).

2.1.2. Lexikologi Erizpideen Finkapena Azpibatzea

Erorpena.

Lexiko-Erizpideen Finkapenerako Azpibatzearen 1990eko eginkizun nagusia, eratorpenaren azterkari ekitea izan da. Horretarako, aurreko urtean zehar bildutako adibideen corpus informatizatua landu da UZEIn, forma eratorriak atzizkien arabera sailkatuz eta beren testuinguru eta kodeekin inprimatuz, txostengileei eskaini ahal izateko.

Ondoko lanaren oinarrietako bat izango da adibidetegi hori. Beste oinarria, berriz, lan-metodologia finkatzea izan da. bataren eta bestearen aurkezpenak egin dituzte Andoni Sagarnak eta Miren Azkaratek XI. Lexikologi Jardunaldietan (Zarautz, 90.IV.21-22): arazo teorikoak argitzeko saioez gain, hainbat ondorio praktikotara iritsi da Azpibatzerdea Jardunaldi hauetan.

Metodologiari dagokionez, atzizki bakoitzaren azalpenak ondoko puntuok argituko ditu gutxieneko kontuan: 1. Atzizkiaren lema eta aldaerak, 2. Hitz oinarriaren kategoria gramatikala, 3. Hitz eratorriaren kategoria eta azpikategoria, 4. Atzizkiaren adiera(k), 5. Atzizkien pilaketa, edo garapena, 6. Junturako hots-topaketak eta 7. Atzizkiaren emankortasuna.

Adibidetegia bera sistematikoki osatuz joatea da bigarren ondorioa: atzizkiak landu ahala, txostengile-ikertzaileak markatu egingo ditu dagokion corpus-eko atzizki-lemak, estuko zuzenkizunak, eratorriaren kategori marka eta bestelako informazio osagarriak. Eratorrien azterketa sistematikoa burutzean, burutua egongo da, horrela, adibidetegiaren egokitzapena ere, argitaratzeko nahiz beste erabileretarako.

Ondorio horiek hurbilagotik lotu ahal izateko, Jardunaldietan aurkeztuko diren txostenak aldeztu aurretik Talde eragilearen eskuetan jartzea erabaki da, honek txostengilearekin batera araka ditzan berariazko bileretan, eta garaiz heleraz batzordekideei.

Atzizkiaren banan-banako lanketari helduz, XII. Lexikologi Jardunaldiak egin ditu LEF Azpibatzerdeak Andoainen, abenduaren 21-22etan. Atzizki izenondo-sortzaileak ikertu-eztabaidatu dira lehen ekinaldi honetan: *-ti, -tsu, -koi, eta -tar*, Jose Mari Larrarte, Jose Antonio Aduriz, Luis Mari Mujika eta Andoni Sagarnaren txosten banaren haritik.

Hitz-elkarketa

Inprimatzeko prest dago *Hitz-elkarketa/3* liburugai. Aurreko urteetako Jardunaldietan landu eta eztabaidaturiko hamabi konposatu-mota jasotzen ditu bere baitan: Aditz-elkarteak, Hitz-elkarte sintetikoak, *Jarleku* moduko hitz elkartuak, Atributu eta koordinaziozko elkarteak, Aposizioak, Asmo-elkarteak, Izaera-elkarteak, *Lotsa-gabe, lo-falta* motakoak, *Ezkonberri* elkarteak, Bahuvrihiak, *Erdiase* elkarte-mota eta Hitz-andana ihartuak.

Hamabi batzordekidek idatzitako txostenen bateratze-lanaren lehen emaitzak Zarauzko Jardunaldietan agertu ditu Miren Azkarate azpibatzerde-buruak, eta, lan horretan sorturiko birmoldaketa- eta aldaketa-premiez Azpibatzerdearen oneritzia izanik, bere gain hartu du azken idazketa formulatzea eta inprimaketa aurreko prestaera egitea.

Une berean, txostenen oinarri izan den adibidetegiaren fitxategia ere prestatu da argitaratzeko, txostenen eranskin gisa: sailkapenak eta testuinguruak txostenetako ondorioen arabera birmoldatzeaz gain, testu-tratamendura pasa da, honetan eginez azken ukituak.

Euskaltzaindiak azpibatzerdeari eskatua dion hitz elkartuen azalpen laburbildua, azkenik, forma hartzen hasia da: Andoaingo Jardunaldietan eskaini zen lehen zirriborroari egindako oharra jasoz, 1991ko lehen hilabeteetan eskuratuko zaio Euskaltzaindiari Azpibatzerdearen proposamena.




Ezkerretatik eskubitara: Miren Azkarate L.E.F azpibatzerdeko arduraduna, Euskaltzainburua eta Idazkaria.

2.1.3. EEBS proiektuaren aurrerapena 1990.urtean

Egungo Euskararen Bilketa Sistematikoa deitzen dugun programa honek XX.mendean euskarazko argitalpenetan erabili den lexikoaren nondik norakoak ezagutzera ematea du helburutzat. Xede hau 1987-1991 epean burutu beharrekoa da, aldeztu aurretik prestatu zen egitasmoak diogenaren arabera. lehen hiru urteetan euskal produkzio idatziaren inbentarioa eta sailkapena, lagin bat hautatzeko eredu estatistikoaren diseinua, 60.000 testu-hitzeko corpus batekin proba pilotu bat egitea, corpusaren bilketa, testuak euskarri informatikoan jartzea, eta corpus zerrendatuak prestatzeko programa informatikoen garapena izan ziren eginkizun nagusiak.

Proba pilotuaren emaitzak bi izan ziren batez ere: lematizazio-arazoaren sistematizazioa eta programa informatikoak prestatzen hasteko behar zen lan-prozeduraren analisisa. Aurreko urteetan eginiko aurrelan honi esker 1990. urtean bultzada handia eman ahal izan zaio programari. hasiak dira espero ziren emaitzak agertzen.

Ondoko irudiak erakusten du EEBS proiektuaren barneko eragiketa bakoitzak 1990. urtean zehar izan duen eboluzioa.



1. *Irakurgailu optikoaz ordenadorean sartuta*
2. *Formatu arautuan jarrita*
3. *Originalarekin gonparatuz zuzenduta eta oharrak ipinita.*
4. *Hustuta, lematizatuta eta beren testuinguruekin.*
5. *Hustuta, lematizatuta eta beren testuinguruekin.*
6. *Lematizazioa egiaztatuta.*

Ikusten denez, ordenadorean sarturiko testuen zuzenketak, hustuketak eta lematizazioak hartu dute 1990ean denborarik gehiena.


Bestalde, kontuan izan behar da corpora 2.000 testu-zati inguruk osatzen dutela. Hustuketa egiteko garaian zati bakoitzak hiru datu-fitxategi (testuak, hitzak eta datu estatistikoak) sortzen ditu eta beste hainbeste indize. Hamabi mila fitxategi hauek pixkanaka batu egin behar dira sei bakarrik eduki arte. Batuketa-lan hau ere aurrera doa.

2.2. GRAMATIKA BATZORDEA

Bileretarako lana.

1988. urtean hasitako lanaren parte bat burutu ahal izan du Gramatika Batzordeak 1990. urtean. Gauzak ohizko ikuspegitik begiraturik, perpaus elkartuen atalak bi azpiatal bezala lituzke: *juntadurari* dagokiona bata eta *menderakuntzari* dagokiona bigarrena. Ohizko gramatiketan, ordea, juntadura eta bereziki juntagai-luen zerrenda gehiegi zabaldu izan da. Horrenbestez, behar beharrezkoa izan da

lehenbizi juntagailu omen ziren zaku handi horretatik egiazko juntagailuak bereiztea. Horrela, juntagailu ez, lokailu modura baizik, bataiatu diren beste elementu batzu berezi ziren. Hain zuzen, bereizketa horren fruitua aurkeztu ahal izan dugu aurtengo urte honetan Eguberri aurrean Larramendiren omenez Andoainen egingdako bileran *EGLU III*: Lokailuak izenburupean.



Lokailuei eskeinitako lan hau burutu ahal izateko, 1990. urtean 13 bilera egin ditu Gramatika Batzordeak. Hasierakoetan, artean lokailuen eta juntagailuen arteko bereizketa egitea erabakia bagenuen ere, erizpideak finkatuegiak ez zedenez, hasierako eztabaidetara behin baino gehiagotan itzuli beharrean aurkitu da batzordea. berez geroko utzi beharreko lanen bat edo beste ere aurkeztu eta eztabaidatu izan da. Adibidez, juntagailu hautakariei eskainitako lana, K. Rotaxek eta M. Azkarate batzordekideek aurkeztua.

Hauetaz gainera, lokailu direlakoak aztertzen eta gaiak ahalik eta era egokienean banatzen saiatu da Gramatika batzordea:

1. Lehenbizi, Lokailuak zer diratekeen eta perpausen artean gertatzen den loturari zer nolako testua ematen dioten aztertu.

2. Lokailuak sailkatu eta

3. Lokailu bakoitza bere sailean kokatu, banan banan aztertu eta eztabai-
datu.

Lan hau, jakina, aurretik hasia zen eta aurten burutu ahal izan da.

Oinarri informatikoa.

1990. urtean bekadun baten laguntza ere izan du Batzordeak EJIJ-erako harremanetarako eta *Hiztegia* egiteko osatu zen corpus-az baliatzeko.

Bekadun honek lehenbizi, urtarrilean, pare bat astetako ikastaro bat egin zuen. EJIJ-n tresnaren erabilpenaz jabetzeko. Gero Lakuan, Hizkuntz Politika Idazkaritzako bulego batean hasi zen lanean. Hasieran oso lan sinpleak agindu zaizkio. Adibideak osatzea bereziki. Denbora aurrera joan ahala, gauzak pittin bat konplikatzuz joan dira. Funtsean, batzordearen lanak ezkatzen zuen informazioa eskuratzeko izan da bekadunaren lana: argitara berri den EGLU III liburuaren azpian dauden lekuko-azpiegitura batzordekideen esku jartzea izan da egin den lana.

Beraz, esan daiteke, 1990 urtean, perpaus elkartuen azterketarantz garatzen bidean lehenbiziko etapa burutu da. Hemendik aurrerakoak -erizpideak finkatuagoak direnez gero- oinarri sendoagoarekin aztertu ahal dira, horrela juntaturari lehenbizi eta menperakuntzari ondoren, ekiteko kondizio hobetan egongo delarik.

Eta azkenik, aurreko liburukietan sakabanaturik zeudenak biltzeko ahalegina ere egin da. bereziki EGLU I- i dagozkionak, aurkibideak barne.

2.3. DIALEKTOLOGIA BATZORDEA

Batzorde honek bi arlotan lan egiten du:

2.3.1. Euskalkien Ikerketa Arruntak azpibatzerdea (EIA)

2.3.2. Euskal herriko Hizkuntz Atlas (EHHA)

2.3.1. Euskalkien Ikerketa Arruntak

1990. urtean Dialektologia Azpibatzerde honek egin duen lana ondoko puntuetan bil ditek:

1. Azpibatzerdeak egin dituen bi bilkuretan, batzordekide zenbaitek txostenak aurkeztu dituzte eta eztabaidatuak izan dira. Txosten hauek izan dira:

Tx. Peillen: "Gaskoinetik jin maileguak Zuberoko mintzairan".

I. Gaminde: "Inkestagintzaz".

R.M. Pagola: "Ahozko hizkuntzatik herri-kulturara: Zugarramurdiko etno-testu bat".

2. Inkesta batzu egin dira bereziki euskara galduz joan den herrietan, hala nola Loiu, Ugao, Mungia, Basauri, Mundaka, Galdakaon, Iñaki Gaminderen eskutik eta batzordearen "salbamendu" deitu operazioaren barruan.

3. Hirugarren ardatza izan da batzordekideek jadanik bildu dituzten lanak argitaratzeko nahia mamitzea eta arrazoinatzea. Horretarako behar litekeen agerkari berri baten ezaugarriak eztabaidatu dira: proiektuaren ardatz nagusiak prest daude Euskaltzaindiari aurkezteko berak ikus dezan egingarri den ala ez, eta zein baldintzetan, azpibatzerkideen ustetan oso beharrezko den agerkari hori.

2.3.2. Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa

Fruitukor aritu da EHHako Lantaldea proiektuak biltzen dituen alor desberdinetan. Atlasgintzaren bigarren maila gainditzeko unean sartu da urtearen bukaeran, hots, inkesten amaieran.

Lan eta ekintzen bilakaera.

Euskal herriko Hizkuntz Atlasak nagusiki bi zeregin izan ditu sakon eta iraunkortasunez landu dituenak 1990. urtean eta ondorenez emankorren suertatu direnak. Arlo hauek inkestagintza eta informatizapena izan dira, hain zuzen ere. Hala ere izan da bestelako beharrik langintza honen 5. urtean.

1. Inkestagintza.

Aurreko urteetatik EHHAk inkestagintzan zekarren abiadura apaldu egin da 1990ean. Urte honetarako egin ziren aurreikusmenak ez dira bete.

Hasiera hasieratik uste bazen inkestak urte bukaerarako amaituak izango zirela, ez da hala gertatu.

Inkestagintzarako urtez-urteko datuak aztertuz honako hauek eskaintzen dira:

- 1987an 33 inkesta bukatu ziren
- 1988an 36 inkesta bukatu ziren
- 1989an 25 inkesta bukatu ziren
- 1990an 19 inkesta bukatu ziren

Datu hauek ikusiz, bai iaz, bai aurtengo datuak apaldu egin direla nabari agertzen da.

| HERRIALDEA | EGINDA | | EGITEN | EGIN GABE | GUZTIRA |
|----------------|-----------|------------|-----------|-----------|------------|
| | 90n | OROT | | | |
| Bizkaia | 4 | 32 | 4 | 0 | 36 |
| Araba | 1 | 1 | 0 | 0 | 1 |
| Gipuzkoa | 3 | 35 | 1 | 0 | 36 |
| Nafarroa | 6 | 21 | 6 | 0 | 27 |
| Lapurdi | 3 | 10 | 3 | 2 | 15 |
| N. Beherea | 2 | 7 | 9 | 2 | 8 |
| Zuberoa | 0 | 7 | 4 | 1 | 12 |
| GUZTIRA | 19 | 113 | 27 | 5 | 145 |

Joera honen zergatietan arakaturaz, ondoko arrazoi hauek aipatu behar dira:


a) Inkestetako denbora kalkuluetan ez zen zehatz jokatu eta gero egian behar izan dena baino hertsia jo zela.

b) Inkestak egin ahala geroago eta osoagoak, aberatsagoak egiten direla, eta ondorioz luzeagoak.


c) Zuzendari Teknikoek 1989ko irailetik aurrerantz informatizazioaren arazoari irtenbide egokia bilatu asmoz erabilitako denbora.

d) Zenbait inkestaren zailtasun bereziak: bai gaskoiera/euskara mugetan, Hegoaldeko lankideak Iparraldeko inkestetan (egiten zein transkribatzen) aritu beharrak...

1990. amaieran beraz, honako datu hauek eskain daitezke: 19 inkesta bukatu dira, beste 27tan dihardute eta azkenik 5 dira inkesta egiten hasi gabeko herriak. Amaituta 113 herri daude.



2. Inkestagintzaren bilakaera.



3. Egungo egoera %tan.

2. Informatizapena.

1989. bukaeran hasi ziren EHHA informatizatzeko lehen urratsak ematen: EHHAko Zuzendari Teknikoek eta EJIeko informatikariaren arteko bileren bidez

batzuk beren proiektua azaltzen zioten heinean, bestea informatikaren aukeraren berri ematen saiatu zen. Benetako eraikuntza-lana urtearekin hasi zen Brest-en CNRSeko eta beste atlasgile batzurekin informatizapenaz izandako bileren ondoren.

CNRS eraikitzen ari zen eredia ezagutu ondoren EHHAraiko beharrezko ziren baldintzak kontutan hartuz abiatu zen informatizapenaren proiektua.

Aipatu behar da, maiz entzun den leloa bada ere, geure haragitan jasan baitugu, nahiz aurretik garbi geneukan, ezinbestekoa dela informatika lanetan arituko den pertsona eta hizkuntzalarien arteko harreman estua. Egia esan lan serioa, eta bileren bitartez nahi baino nekezago atera da aurrera lan hau.

Lan honek txosten desberdinak eragin ditu, hala nola "EHHA euskal soinu-entaula" alfabeto fonetiko informatizatzeko, bide beretik "EHHA. Alfabeto fonetikoaren kodaketa"; "EHHA: hitz proposatuei buruzko lekukoaren ezagutza kodez" eta antzekoak lekukoei proposatzen zaizkien hitzen tratamendu informatikoa eraikitzeko; "EHHA. Datu sarrerarako arautegia" datuak sartzeko unerako, non biltzen diren testu libreak transkribatzeko arauak, datuak gordetzeko sistemak, segurtasun neurriak...

Informatizazioa hiru fase desberdinetan burutuko da:

I fasea: datu sarrera

II fasea: datuen elaboraketa eta mantenua

III fasea: kartografia.

Hiru fase hauetarik lehena bakarrik jorratu da, besteak gerorako utziz. Eta urte osoan zehar aritu ondoren azaroan amaitutzat eman da. Ordenagailu desberdinetan ezarpena egin ostean erabiltzaileari trebatuz joateko epea eman zaio (hiru ordenagailutan ezarri da oraingoz, arazo batzu bitarte, nahiz geroago bostetan arituko den lanean).

Aipatu datu-sarrera hau burutzeko tresneria berriaz jabetu da lantaldea. Ondoko lanabesak erosi dira: bi ordenagailu **Atlas at 286**, hiru inprimagailu **LaserJet II P**, bost tableta digitatzaile **CalComp** datu fonetikoak sartzeko, eta bost streamer datuen garraiaketa eta artxibaketarako.

Euskaltzaindia-CNRS hitzarmena.

Ezer gutxi aurretratu da urtean zehar gai honi dagokionez. Azkenean urtea amaitzeko asko gelditzen ez dela badirudi etorri dela testuari buruzko CNRSen oneritzia. Beraz, hitzarmena sinatzeko behar zen azken urratsa emana da. Laster burutuko den esperantza ez da galdu behar.

Bestelako lanak.

1. Fonoteka.

Aurrera-pausu nabarmenik ez bada eman ere gaia zehaztuz joan da J.A. Arana Martijaren lan eskergaitzarekin: Madrilen, "Reina Sofia"ko fonoteka bisitatu

da hango arduradunekin mintzatzeko eta erabiltzen dituzten bideak ezagutzeko; bikoizketa etxe eta teknikariek izanak dira prezioak eta euskarriak aztertzen; etxe profesionaleri ere eskatu zaie aholkua zintak gordetzeko euskarriaz. X. Videgain izana da Aix-en-Provence AFAS (Association Française d'Archives Sonores)-ek eratutako bileretan; egoitza berriaz arduratzen diren arkitektoekin bilera zenbait egin da kokapenari buruz.

Baina, oraindik ez da zintaren kopiak nola egin erabakirik hartu. Hala ere gaiak badu presarik eta ezin esan daiteke zintak arriskutik kanpo daudenik.

2. L.L. Bonaparteren mendeurrena.

Euskalari ospetsuari dagokion bezala dialektologiari buruzko biltzar batekin ohoratu nahi du Euskaltzaindiak Bonaparte printzea.



L. L. Bonaparte

Euskaltzaindiak ezinbestekotzat dauka EHHako zuzendari Teknikoen parte hartzea gai honi buruzko biltzarra behar den bezala eta EHHA barne hartuko duen egitaraua atontzeko.

Oroitarre bera dela eta egingo den erakusketarako Printzeak bildutako *ereilearen parabolaren* bertsio desberdinak grabatu egin dira euskalki diferentietan J.A. Arana Martijak eskaturik.

3. Hitzaldiak.

EHHAren ihardueraren ondorioz eskariak ere izan dira urtean zehar. EHHAren informatizaziorako zailtasun batzuz mintzatu zen X. Videgain Euskaltzaindiaren bilera irekian "Tripot, lehatxun, ez adiorik: Euskal Atlasaren informatizatzeko bidean epantxu zenbait" txostena irakurriz. UEUren Baionako ihardunaldien sarrera hitzaldia eta Bilboko ekitaldietan X. Videgainek parte hartu zuen EHHA gaitzat harturik.

4. Argitalpenak.

Bi artikulu luze argitaratu dira urtean zehar EHHAz: G.Aurrekoetxea - X.Videgain, "Euskal herriko Hizkuntz Atlasa" in *Ikasgelatik plazara*, UEU, Bilbo, 90-VI-31 (1989 ekitaldietako hitzaldien bilduma), eta G.Aurrekoetxea - X.Videgain, "Euskal Herriko Hizkuntz Atlasari buruzko zertzelada batzu", *Karmel*, 193, 1990-2, 44-48. Kazetal artikulu bat ere izan da *Arrasate Press* delakoan.

5. Formakuntza.

ALCESTE logizielaz formakuntza ikastaroan izana da X. Videgain.

6. Kontsulta eta aburuak

Batzordeak gai desberdinez kontsulta zenbait egin du joan den urtean: "Reina Sofía"n fonotekaz; J. Allièresi Zuberoako azentuaz; J.M. Fontain-eri zinten kopiez; Sony etxeari zinten kopiez.

Aburuak edo eritziak ere eman ditu zenbait kasutan: Sühazia-ri, J.L. Ugarte Garrido legazpiarrari, I.Villebrun-i olagintzaz, K. Zuazo eta X. Alberdi irakasleei, Aduriz jaunari eta abar.

Inkestagintza 1990.ko abenduaren 31ean

| Lurraldea | Herria | Kodea | Amaitua | Egiten |
|-----------|------------|-------|---------|--------|
| | Getxo | 1.1 | * | |
| | Leioa | 1.2 | * | |
| | Zollo | 1.3 | * | |
| | Sondika | 1.4 | * | |
| | Laukiz | 1.5 | * | |
| | Lemoiz | 1.6 | * | |
| | Etxebarri | 1.7 | * | |
| | Zaratamo | 1.8 | * | |
| | Orozko | 1.9 | * | |
| BIZKAIA | Mungia | 1.10 | * | |
| | Zeberio | 1.11 | * | |
| | Bakio | 1.12 | * | |
| | Fika | 1.13 | * | |
| | Larrabetzu | 1.14 | * | |
| | Arrieta | 1.15 | * | |
| | Lemoa | 1.16 | * | |
| | Dima | 1.17 | * | |
| | Zeanuri | 1.18 | * | |
| | Errigoiti | 1.19 | * | |
| | Bermeo | 1.20 | * | |

| Lurraldea | Herria | Kodea | Amaitua | Egiten |
|-------------|-----------------|-------|---------|--------|
| BIZKALIA | Busturia | 1.21 | * | |
| | Zornotza (Euba) | 1.22 | * | |
| | Mañaria | 1.23 | * | |
| | Otxandio | 1.24 | * | |
| | Ibarruri | 1.25 | * | |
| | Mendata | 1.26 | * | |
| | Kortezubi | 1.27 | * | |
| | Elantxobe | 1.28 | * | |
| | Berriz | 1.29 | | * |
| | Arrazola | 1.30 | * | |
| | Elorrio | 1.31 | * | |
| | Bolibar | 1.32 | | * |
| | Gizaburuaga | 1.33 | * | |
| | Lekeitio | 1.34 | * | |
| | (Markin-)Etxeb. | 1.35 | | * |
| Ondarroa | 1.36 | | * | |
| ARABA | Aramaio | 2.1 | * | |
| GIPUZKOA | Gatzaga | 3.1 | * | |
| | Arrasate | 3.2 | * | |
| | Eibar | 3.3 | * | |
| | Araotz | 3.4 | * | |
| | Oñati | 3.5 | * | |
| | Bergara | 3.6 | * | |
| | Elgoibar | 3.7 | * | |
| | Mendaro | 3.8 | * | |
| | Deba | 3.9 | * | |
| | Azkoitia | 3.10 | * | |
| | Urretxu | 3.11 | * | |
| | Legazpi | 3.12 | * | |
| | Zegama | 3.13 | * | |
| | Itxaso | 3.14 | * | |
| | Zestoa (Arrua) | 3.15 | * | |
| | Azpeitia | 3.16 | * | |
| | Getaria | 3.17 | * | |
| | Beizama | 3.18 | * | |
| | Beasain | 3.19 | * | |
| | Ataun | 3.20 | * | |
| | Errezil | 3.21 | * | |
| | Aia | 3.22 | * | |
| Orio | 3.23 | * | | |
| Asteasu | 3.24 | * | | |
| Ikaztegieta | 3.25 | | * | |
| Amezqueta | 3.26 | * | | |
| Tolosa | 3.27 | * | | |

| Lurraldeia | Herria | Kodea | Amaitua | Egiten |
|--------------|-------------------|-------|---------|--------|
| GIPUZKOA | Donostia (Ibaeta) | 3.28 | * | |
| | Lasarte | 3.29 | * | |
| | Andoain | 3.30 | * | |
| | Elduain | 3.31 | * | |
| | Orexa | 3.32 | * | |
| | Hernani (Epele) | 3.33 | * | |
| | Pasaia | 3.34 | * | |
| NAFARROA | Oiartzun | 3.35 | * | |
| | Hondarribia | 3.36 | * | |
| | Urdiain | 4.1 | * | |
| | Arbizu | 4.2 | | * |
| | Dorrao | 4.3 | * | |
| | Gaintza | 4.4 | * | |
| | Leitza | 4.5 | * | |
| | Etxarri | 4.6 | * | |
| | Oderiz | 4.7 | * | |
| | Goizueta | 4.8 | * | |
| | Ezkurra | 4.9 | * | |
| | Beruete | 4.10 | * | |
| | Igoa | 4.11 | * | |
| | Etxaleku | 4.12 | * | |
| | Xuarbe | 4.13 | * | |
| | Sunbilla | 4.14 | * | |
| | Donamaria | 4.15 | * | |
| | Etxalar | 4.16 | * | |
| | Alkatz | 4.17 | | * |
| | Anitz | 4.18 | | |
| | Lekaroz | 4.19 | * | |
| | Zugarramurdi | 4.20 | | * |
| | Eugi | 4.21 | | * |
| | Erratzu | 4.22 | * | |
| | Zilbiti | 4.23 | * | |
| | Mezquiriz (Ureta) | 4.24 | * | |
| | Luzaide | 4.25 | * | |
| Abaurregaina | 4.26 | | * | |
| Eaurta | 4.27 | | * | |
| LAPURDI | Hendaia | 5.1 | * | |
| | Donibane Lohizune | 5.2 | | * |
| | Azkaine | 5.3 | * | |
| | Sara | 5.4 | * | |
| | Senpere | 5.5 | * | |
| | Ahetze | 5.6 | * | |
| | Arrangoitze | 5.7 | * | |

| Lurraldea | Herria | Kodea | Amaitua | Egiten |
|---------------------|---------------|-------|---------|--------|
| LAPURDI | Ustaritze | 5.8 | | * |
| | Mugerre | 5.9 | * | |
| | Itxasu | 5.10 | * | |
| | Urketa | 5.11 | * | |
| | Beskoitze | 5.12 | | * |
| | Hasparne | 5.13 | * | |
| | Makea | 5.14 | * | |
| | Bardoze | 5.16 | | |
| NAFARROA BEHEREA | Aldude | 6.1 | * | |
| | Bidarra | 6.2 | | * |
| | Baigorri | 6.3 | * | |
| | Arnegi | 6.4 | | * |
| | Uharte Garazi | 6.5 | | * |
| | Irisarri | 6.6 | | * |
| | Isturitze | 6.7 | * | |
| | Arruta | 6.8 | | * |
| | Mehaine | 6.9 | | |
| | Esterenzubi | 6.10 | * | |
| | Gamarte | 6.11 | | * |
| | Landibarre | 6.12 | | * |
| | Behorlegi | 6.13 | * | |
| | Arboti | 6.14 | | * |
| | Garruze | 6.15 | | |
| | Jutsi | 6.16 | * | |
| | Larزابale | 6.17 | * | |
| | Bastida | 6.18 | * | |
| ZUBEROA | Phagola | 7.1 | * | |
| | Domintxine | 7.2 | | * |
| | Urđiñarbe | 7.3 | | * |
| | Altzürükü | 7.4 | | * |
| | Larrañe | 7.5 | * | |
| | Altzai | 7.6 | | * |
| | Sohüta | 7.7 | * | |
| | Muntori | 7.8 | | |
| | Santa Grazi | 7.9 | * | |
| | Ürrüstoi | 7.10 | * | |
| | Barkoxe | 7.11 | * | |
| | Eskiula | 7.12 | * | |

2.4. ONOMASTIKA BATZORDEA

Lizarra hiri-bilduaren IX mendeurrenkari, bertan egin dira III Jardunaldiak, irailaren 26tik 28ra, Nafarroako Gobernuaren eta Lizarrako Udalaren babespean. Guztiz arrakastatsuak gertatu dira, bai hizlarien aldetik, bai entzuleenetik. Jardunaldiekin batera, III Mapagintza Erakusketa, Nafarroako mapei eskainia, izan da, Azkue Bibliotekak antolatua.



Eskubitatik ezkerretara: M. Morvan txostengile frantsesa, E. Knörr, J. Haristchelhar eta J. M. Satrustegi.

Bizkaiko Diputazioarekin hitzarmen bat sinatu da urriaren 11an, Bizkaiko udal- eta auzo-izenen idazkera batez ere bideondoko karteletan agertu behar dena, berrikusteko. Lanaren ardura J.L.Lizundia batzorde-idazkariak izango du.

Euskal Mendizale federakundeak eskaturiko mendi-zerrenda aztertu da. Honez gero liburua argitaratua dago.

Udal-erizpen batzu eman dira, honako herrien izenez: Ibarrangelu, Forua, Berriatu, Legazpi, Bidegoian, Aia, Iruñea, Ikaztegieta eta Luiaondo.

Orobat eman dira zenbait erizpen kale-izenez, Beasain, Trapaga, Ortuella, Legazpi, Zaldibar, Zumarraga eta Gautegez-Arteagan. Donostiako udalari datxekola, batzordeak adierazi dio kaleen izenez, eta batez ere kale berrienez, bere iritzia eman nahi duela, legeak hala agindurik. Izkribu berean, *Berio* eta *Benta Berri* idatzi behar dela, eta ez *Beriyo*, *Venta Berri*, esan dio.

F.E.V.E.-k eskaturiko Bilbo-Leon bideko geltokien izenak, Euskal Herriko eremuan, aztertu eta bidali dira.

1990ean bukatu da halaber M. Angeles Libanoren lan garrantzitsua, 1200era arteko euskal toponimia bilketa. Abenduko batzarrean batzordeak oniritzia eman dio lanari eta argitaratzeko lehen urratsak eman ere.

Usurbilgo eta Andoaingo toponimia azterketa burutu dutenekin bilkura bana egin da, lana jasotzeaz batera. Usurbilen lanean aritu direnak Jose Javier Furrundarena eta Mari Karmen Etxabe izan dira, eta Andoaingen Amaia Usabiaga. Agian lanok Euskaltzaindiaren bitartez argitaratuko dira.

Angel M. Elortegik egin duen Pasaiako leku-izen azterketa ere ikusi du batzordeak. Udalarekin lehen urratsak eman dira bi Erakundeen artean lana ahalik lasterren argitara dadin.

Hiru herritan egin dira bertako toponimia aztertzeko lehiaketak: Arrasaten, Bergaran eta Hondarribian. Guztietan izan da batzorde honen ordezkari bat.

Nafarroako toponimia xeheari dagokionez, aurten abiatu da dena biltzeko proiektua, hango Gobernuaren babesean. Trabajos Catastrales, S.A. enpresak eramango du mapagintza. Batzordean euskal eta erromanikar izenak finkatzeko irizpide nagusiak ikertu dira.



Idiazabalgo baserri-izenez egin berri den lana ere, bertako batek egin, batzordeari igorri zaio, honek bere erizpena eman diolarik.

Zenbait urgazleren kontsultak jaso dira batzordean, Laukariz izenaz, adibidez.

Gorbeiaiko leku izenak biltzea eta mapetan jasotzea darama Alberto Sanchu Urbina jaunak aurrera. Lanaren parte bat ikusi da batzordean eta egileari geure oneritzia eman.

Deiturak ere izan dira batzorde honen egitekoa aurten. Batzorde-burua, Arartekoarekin batera, Enrique Múgica Justizia ministrariarekin hizketatu da, apirilaren 19an, Madrilan. Bertan Euskaltzaindiaren kezka agertu zaio Mugica jaunari, deiturak euskal grafian ezartzeko eta ofizialtzeko eskabideak nola bideratu.

Zenbait udalen ordezkariak batekin ere izan du batzordeak bilkura, urriaren 19an, Gasteizen, deituen gainean. Funtsean, gaiaren zailtasuna eta kontuz ibili beharra aditzera eman zaio ordezkariak hari.

Gizabanako batzuren kontsultak ere erantzun dira, deituen euskal grafiari buruz.

Argitarapenen alorrean, aurten Gerardo López de Guereñuren *Toponimia Alavesa, seguido de Mortuorios o despoblados y Pueblos alaveses*, batetik eta José María Jimeno Jurioren *Toponimia de la Cuenca de Pamplona, Cendea de Olza* liburuak plazaratu dira, bata Gasteizko udalaren babespean eta bestea Nafarroako Gobernuaren laguntzaz argitaratuak. Bidean dira *Actas de las I Jornadas de Onomástica* (1991eko lehen hiruhilabetean plazaratzekoa); Jimeno Jurioren *Toponimia de la Cuenca de Pamplona, Cendea de Ansoain*; *Actas de las II Jornadas de Onomástica* eta *Actas de las III Jornadas de Onomástica* liburuak.

2.5. LITERATURA BATZORDEA

Batzorde honek hiru azpibatzerde ditu:

2.5.1. Literatura Klasikoa azpibatzerdea

2.5.2. Herri Literatura azpibatzerdea

2.5.3. Literatura Ikerketa azpibatzerdea

2.5.1. Literatura Klasikoa

Leizarragak egindako Testamentu Berriaren hitzulpenaren ikerketa lanei jarraitu zaie. Nola 1989an Jaun Done Johannesen araurako Ebanjelio Saindua aztertutik izan baizen 17.garren kapituluraino, erabaki hau hartu da:

- a) Abiatu Ebanjelio honen azterketa bukatuko zela, eta
- b) San Lucasen araurako Ebanjelio Saindua ere ikertuko zela.

Hontara, bada, lau Ebanjeliotarik hiru izan dira aztertutik, hau da: San Markos, San Joan eta San Lukas. Beraz, San Mateoren araurakoa soil-soilik aztertzeko legoke 1991an.

Ikertze lan hauen eginkizuna honela banatu da:

— Federiko Krutwig: Bibliari buruzko problema kulturalak eta Palestinako judaismoari buruzko tematika.

— Juan Jose Pujana: Ebanjelioen originalak eta itzulpenak. Hiru Ebanjelio sinoptikoak San Johannesen Ebanjelioarekin konparatu ditu.

— Jesus Lavin: Testamentu Berriaren grekerazko barianteak ikertu ditu, Leizarragaren itzulpenetik dagoen testua finkatzeko.

– Manu Erzilla: Duvoissinek egin zuen itzulpen Vulgatikoaren ikertza-pena Leizarragaren testuarekin erkatuz.

– Alfonso Irigoyen: Leizarragaren lapurtera klasikoa eta bizkaiko euskara literarioari buruzko gaiak aztertu ditu.

– Jon Gotzon Etxebarria: Vulgata izeneko itzulpenaren ikerketak.

– Mikel Agirreazkuenaga: Martin Luteroren alemanezko itzulpena eta Bible de Geneve izeneko frantsez itzulpen protestanteen ikerketa.

Ebanjelioaren azterketa eginaz hasi zenez gero, ikusi da on litzatekeela Ebanjelio apokrifoa ere aztertzea. Hain zuzen, Lavinek itzuli du Leizarragaren estiloa imitatuz, Lapurdiko euskara klasikora Johannes Ebanjelistaren Apokrifoa bezala ezagutzen dena.

Lavin jaunak, Leizarragak erabilitako KE euskal afixuaren adibideak aurkeztu ditu, grekozko *ov* eta akeozko ke-ren ordainak hain zuzen. Krutwig jaunak, bestalde, hizkuntzen tipologiari buruzko lan bat aurkeztu du, determinatu ahal izateko sintaxi-tipoen Leizarragaren enplegua, bai estilistikaren aldetik bai argitasun aldetik ere. Krutwig jaunak ere beste lan bat aurkeztu du esaldi anaforikoei buruzkoa. Baita ere, Johannes izenaren etorki eta enpleguari buruzko estudio bat, zeinetan bai Euskal Herriko aintzinako Elizan eta Grial Sainduaren leiendan Ertaroan korritzen zen erlazioa.

Guzti hau bi liburukitako argitalpenetan gauzatu beharko litzateke.

2.5.2. Herri Literatura azpibatzerdea.

Herri-literatura azpibatzerdearen lan-eremuak herri-literaturarena hartzen du bere luze-zabalean: kontapoesia, bertsoaritza, ipuinak, antzerkia, esaera zaharrak, pastoralak, herri-narratiba, asmakizunak, eta abar.

Bere ohizko hiru arloetan jardun du 1990ean ere Herri-literatura azpibatzerdeak: ikerketaren arloan, bilketaren arloan eta zabalkundearen arloan. Eta bere lana honako ekintza hauetan hezurmamitu da, 1989an eratutako plangintza-ren arabera.

Herri-literaturari buruzko II Jardunaldien prestaketa.

Erabakiak geratu dira 1990ean zehar herri-literaturari buruzko II. Jardunaldien nondik-norako nagusiak:

– Jardunaldiak 1992ko hasieran izango dira, oraindik zehaztu gabeko egunetan. (Hasieran 1991ko abendurako zeuden antolatuta, Jean Baptiste Elisanburu hil zeneko mendeurrena dela eta Euskaltzaindiak antolatu dituen ospakizunekin batera izateko; baina atzeratu egin dira zertxobait, ekintzak aldi berean ez pilatzearren).

– Herri-narratibagintza izango dute gai.

– Zortziren bat hitzaldi nagusik osatuko dute II. Jardunaldien hezurdura. Hitzaldi hauek adituei eskatuko die Herri-literatura azpibatzordeak, eta horietako bat herri-narratibaren esparrua mugatzeaz arduratuko da eta terminologia finkatzeaz.

– Komunikazioak ere aurkeztu ahal izango dira, azpibatzordeak aldez aurretik jarritako baldintzen arabera.

Argitalpenen prestaketa.

Burutuak geratu ziren azpibatzorde honek 1991n Argitarapenen batzordearen eskuetan jarri dituen hiru lanak; honako hauek, hain zuzen:

– "Herri-literaturari buruzko I. Jardunaldiak: kontapoesiaz".

– "Uztapideren oin-errimen almazena berrosatzen" (Manuel Lekuona saiakera-saria).

– "Xenpelar saria 1987 eta 1989" (sari horietara aurkeztutako bertsoen bilduma).

Era berean, 1992rako aitzinasmoa ere prestatu du azpibatzordeak.

1991ko Xenpelar sariari buruz.

Aurreko sariketetako lanak argitaratzeaz gain, erabaki zen eginahal bereziak egitea 1991n bertso-paperetako eratuko den Xenpelar sariak aparteko oihartzuna izan dezan.

Reus-en izandako "Col.loqui sobre canço tradicional" jardunaldietan parte hartzea.

Billabonan 1989an izandako herri-literaturari buruzko I. jardunaldietan beste herrialdeetako ikertzaile, aditu eta lan-taldeekin hasitako lan-harremanen ildotik, Reus-eko "Centre de Documentació sobre Cultura Popular / Carrutxa" delakoak eratutako "Col.loqui sobre canço tradicional" jardunaldietan parte hartu zuen Antonio Zavalak irailaren 12tik 15era bitartean. Besteak beste, Karlistaden inguruan bildutako hainbat herri-literatur lanen berri eman du "Cancionero de las Guerras Carlistas" hitzaldian.

Herri-prosaren suspertzea, biltzea eta argitaratzea.

Herri-prosa suspertu, bildu eta argitaratzeko egitasmoaren oinarri orokorrak jarri dira. Egitasmo osoaren funtsa honako hau da: euskara hutsean pentsatuz baliatzen direnen euskarazko idazlanak biltzea, euskara hutsezko altxorra osatzea eta argitaratzea. Oinarrizkotzat jo da egitasmoa, ahalik eta egokien eratu, moldatu eta burutu behar dena.

Eginkizun geratu da erabaki zehatzak hartzea.

2.5.3. Literatura Ikerketa azpibatzordea.

Asmo eta Lan Esparru.

Azpibatzordearen helburuak esparru honetara mugatu dira: literaturan eta literatur kritikan lan egin nahi du batzordeak. Unibertsitatearen ondoan eta honekin batera lan egitea nahi luke. Baina eremu propioa bilatuz.

Eginbeharrak: azpibatzordeak hurrengo lan eremuak hartuko ditu bere gain, apurka-apurka lan egiten joateko.

– Idazleen mendeurrenak: azpibatzordearen partaideek lanen bat bialdu dute honelako mendeurrena ospatzerakoan.

- Literaturaren historia.
- Testu bilketa eta argitalpena.
- Poetika, estilistika, erretorikari buruzko lanak.
- Literatur-kritikaren historia.
- Lan monografikoak.

Estilistika Hiztegia.

Honezkero hasia da lanean literatura ikerketa azpibatzordea. Lehen egitasmo bezala poetika eta estilistika hiztegi bat eratzeari eta idazteari ekin dio. Unibertsitate zein ikastetxeetan erabiltzeko moduko bat egitea nahi da, zabala asmoz eta zehatza definizioz. Lehen epe batean, batzordeak euskal kritikari klasikoen lanak aztertzen eta hitzez hustutzen dihardu, hitz multzo zabal bezain sendoa izateko asmoz, bigarren epe batean hiztegiaren sailkatze eta idazketari ekiteko goiarekin.

Hustuak ditugi jadanik: Juan Antonio Mogel, Aita Bartolome, Bizenta Mogel, Aitzol, Orixe, On Manuel Lekuona, Pastoraletan agertzen den hizkera estilistiko, Pierre Lafittek erabilitakoa. Asmoa da hustuketa bera egitea Koldo Mitxelena, Esteban Urkiaga eta Jean Etxepareren lanekin.

Hitz teknikoaren erabilera klasikoa aztertu ondoren, hiztegia taiutzen eta zehazten hasiko litzateke batzordea.

Mendeurrenak.

- Klaudio Otegiren mendeurrena: Patri Urkizuren lana.
- Elissanbururen mendeurrena: Piarres Xarrittonen lana.
- Villasanteren omenaldia: batzordearen partaide hauen lanak: Patri Urkizu, Jean Haritschelhar, Juan Mari Lekuona, Pierre Xarriton eta Luis Mari Muxikak.

2.5.4. Literatura Sariketak

Zuzenean berak edo laguntza mailan Literatura lehiaketetan parte hartzen du Euskaltzaindiak.

1990.ean hurrengokook azpimarra daitezke, alegia:

– Eusko Jaurlaritzak antolaturiko "Euskal Letren Merezimendua" sariketa-rako: Pello Salaburu.

– Jaurlaritzako Kultura Sailak "Literatur Lanak Sortarazteko Lehiaketa" erabakitzeke: Endrike Knörr.

– Gobernu Zentralak antolaturiko lehiaketa edo sariketetan jaun-andere hauek ordezkatu dute Euskaltzaindia:

- Jose Antonio Arana Marijak, "Premio Nacional de las Letras Españolas";
- Jon Kortazarrek, "Premio Nacional de Poesía";
- Ibon Sarasolak, "Premio Nacional de Narrativa";
- Patxi Altunak, "Premio Nacional de Ensayo";
- Endrike Knörrek epaimahaikide, eta Pello Salaburu eta Jose Maria Larartek, ordezkari, "Premio Nacional de Ensayo";
- Pakita Arregik, "Premio Nacional de Literatura Infantil y Juvenil";
- Jon Kortazarrek, "Concesión de Ayudas a la Creación Literaria".



– Gipuzkoako Aurrezki Kutxak, Literatura Unibertsaleko Obren euskaratzeari saritzeko Orixe lehiaketarako: Patxi Altuna.

– "Banco Hispano Americano"n, ipuin lehiaketarako: Juan Angel Etxebarria. Eta "Hispano de Plata" sari orokorrerako: Jean Haritschelhar.

– Zarauzko udalak Haur eta gazteentzako IX. Lizardi literatur sarirako: Jose Antonio Mujika.

3. JAGON Saila



3. JAGON SAILA

Euskararen jatortasuna eta, era berean, hizkuntzaren eskubideak zaintzeko den sail honek zenbait ekintza eraman ditu aurrera aurten.

Aipa dezagun, lehenik, Nafarroako Gobernuak FM-irratien baimenak eman ondoren, Euskaltzaindiak urriko batzar orokorrean onartu eta plazaraturiko adierazpena, ez bait da legeztatu euskaraz ariko denik.

Euskal Parlamenturako hauteskunde kanpainan Araban zabalduko zenbait iritzi eta aldarrikapenen aurka beste adierazpen bat egin du Sail honek, Arabako Euskaltzaindikoekin batera, azaroak 8.

Ernest Lluch-i, Universidad Internacional Menéndez Pelayo-ko erretoreari, gutuna bidali zaio, Euskaltzaindiaren kezagunea berriro agertuz, udako ikastaroetan gure hizkuntzari buruz aritu direnen artean inork ez bait zekien euskaraz. Lluch jaunarekin buruz-buruko harremana izan da ondoren, Donostian, azaroak 30. Aurreratzean horrelakorik gertatuko ez delako segurantzaz eman zaio Euskaltzaindiari.

Euskaltzainburua, batzordeburua eta idazkaria Bruselas-en izan dira apirilaren 11an, Belgika eta Holandaren arteko Taalunie (hots, "Hizkuntza Elkarte") ezagutzeko eta Flandesko Kultur Ministeritzakoekin hizketatzeko.

Euskaltzainburua eta Sailburua Estrasburgon izan dira, azaroaren 15etik 17-ra, Droits Linguistiques / Droits de l'homme izeneko kongresuan. E. Knörr-ek "Langue basque et droits linguistiques" deritzan bere txostena irakurri du.

Telenorte, Telenavarra eta Radio Nacional-eko zuzendariei Euskaltzaindiaren gutun bana igorri zaie, euskarari bere tokia aitortzeko eskatuz.

Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan EGAREN pareko titulua 16 urte-tik behar bezala ere egokitzeko beharra aztertu da.

Mugica Justizia ministrariarekin deiturak euskal grafiaz ezartze orduan era zuzena legeztatu dadin eskatu dio Sailburuak, Juan San Martín Arartekoarekin batera egindako ikustaldian, apirilak 19. Halaber, presoek esaminak eta gutunak euskaraz idazteko eskubidea segurtatzea eskatu zaio.

Zenbait hutsen berri eman zaie erakunde eta elkarte batzuri. Adibidez, Arabako Hiri-jabegoaren Ganbara Ofizialari. Dendaraba deritzanaren Gasteizko Parkingean euskara baztertu izanagatik ere geure protesta agertu dugu.

Donostiako Udalarri Euskaltzaindiaren kezka agertu zaio, Beriyo eta Venta Berri okerreko grafiak etengabe erabiltzen bait dira, Berio eta Benta Berri -ren orde.

Cervantes Institutua dela-ta, Saila Euskal Herriko alderdiekin mintzatu da, Euskaltzaindiaren asmoa adieraziz, hots, euskarak ere, galiziera eta katalanarekin batera, Erakunde horretan bere lekua izan dezan. Lege-proiektua Diputatuen Biltzarrean deusetan aldatu gabe onartu denez, Fernández Ordóñez ministrariari idatzi dio Sailburuak, Senatuan aldaketa hori egin dadin eskatzeko.

Letrakit izeneko kanpaina, euskal alfabetatzeaz, Euskaltzaindiak antolatu du, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta hiru Diputazioekin batera. E. Knörr eta J.J. Zearreta batzorde eragilean aritu dira.

Bizkaiko Posta zerbitzuari Sail honen kexagunea helarazi zaio, euskara ikasi nahi duten langileei eragozpenak ezartzen zaizkie, beste hizkuntzak ikasi nahi dituztenei egiten ez zaiena.

BELGISCH STAATSBLAD

MONITEUR BELGE

Prijs van het abonnement :
België : per jaar, F 2 200; 9 maand, F 1 650; 6 maand, F 1 100;
3 maand, F 550.

De abonnementen worden genomen en betaald op de postkantoren. Zij omvatten noch de bijlagen noch cender welke andere officiële uitgave.

Buitenland : per jaar, F 6 000; 9 maand, F 4 500; 6 maand, F 3 000; 3 maand, F 1 500.

De abonnementen worden genomen en betaald bij het Bestuur van het Belgisch Staatsblad, Luyckensweg 42, te 1000 Brussel.

Prijs per nummer : F 5 per vel van 8 bladzijden of minder; met de post, vrachtprijs en inlinskosten erbij.

Prijs van de aankondigingen : F 52 de gewone regel.



Prix de l'abonnement :
Belgique : un an, F 2 200; 9 mois, F 1 650; 6 mois, F 1 100;
3 mois, F 550.

Les abonnements doivent être souscrits et payés aux bureaux des postes. Ils ne comprennent pas les annexes ni autres publications officielles.

Etranger : un an, F 6 000; 9 mois, F 4 500; 6 mois, F 3 000; 3 mois, F 1 500.

Les abonnements doivent être souscrits et payés à la Direction du Moniteur belge, rue de Louvain 42, A 1000 Bruxelles.

Prix par numéro : F 5 par feuille de 8 pages ou moins; par le poste, port et frais de recouvrement en sus.

Prix des annonces : F 52 la ligne ordinaire.

152e JAARGANG

N. 34

152e ANNEE

VRIJDAG 19 FEBRUARI 1982

VENDREDI 19 FEVRIER 1982

Verdrag tussen het Koninkrijk België en het Koninkrijk der Nederlanden inzake de Nederlandse taalunie, ondertekend te Brussel op 9 september 1980 (1)

Zijne Majesteit de Koning der Belgen
en
Hare Majesteit de Koningin der Nederlanden,

Zich bewust van het belang van de Nederlandse taal voor de samenleving in Hun landen;

Zich ervan bewust dat de overheden van Hun landen samen medeverantwoordelijk zijn voor de Nederlandse taal als instrument van maatschappelijk verkeer en als uitdrukkingmiddel van wetenschap en letteren, alsmede voor de vaardigheid in het gebruik ervan;

(Traduction)

Traité entre le Royaume de Belgique et le Royaume des Pays-Bas concernant l'Union linguistique néerlandaise, signé à Bruxelles le 9 septembre 1980 (1)

Sa Majesté le Roi des Belges
et
Sa Majesté la Reine des Pays-Bas,

Conscients de l'importance de la langue néerlandaise pour les collectivités de leurs pays respectifs;

Conscients de ce que les autorités de leurs pays ont une responsabilité commune à l'égard de la langue néerlandaise en tant qu'instrument des relations sociales et moyen d'expression pour les sciences et les lettres, ainsi qu'à l'égard du bon usage de la langue néerlandaise;

4. Akademi Zerbitzuak

4.1. EGOITZA ETA ORDEZKARITZAK

Eremu hau, erakunde eta jendearekiko harreman eta beste biderapen arazoei arta eta irteera ematen saiatzen da. Orokorki egoitzaetik eta berezi herrialde erakundeak direnean, dagokion Ordezkaritzaetik.

Erakunde akademikoei buruzkoak izan dira, batzu batez ere, Estatu eremuko "Real Academia Española de la Lengua", "Institut d'Estudis Catalans", "Real Academia de la Lengua Galega" eta "Academia de la Llingua Asturiana" rekin. Bestelako unibertsital edo/eta kultura erakundeekin ere elkarlan, harreman, truka-keta, informazio eta abar ugari izan dira.

Herri Aginteen administral erakundeekiko harremanek, garrantzi handia dute Euskaltzaindiaren baliabide eta eginkizunetarako. Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntz Politikarako Idazkari Nagusi den Mari Karmen Garmendia eta beronen teknikarekin izandakoak dira emankorrenak, bera baita Autonomi Erakunde amankomunen aginduz, horretarako propioki izendatua. Nafarroako Foru Diputazio edo Gobernuarekin Euskaltzaindiak dituen harremanetarako, hizkuntzarekiko solaskide ofizial bat izan dute Hizkuntz Politikarako Zuzendari Nagusi izendatua den Estebe Petrizan jauna. Beste hiru Foru Diputazio eta zenbait udalekin ere harreman eta argitasun eskari ugari izan ditu. Kultur Saitetik gehienbat, baita Hizkuntz Normalizazio Zuzendaritzaetik ere. Gobernu Zentraleko Hezkuntz eta Kultur Ministerietekin ere harreman zuzen eta emankorrak izan dira.

Idazkariordetzari dagokionetik, urtean zehar egindako jardunaldi, bilkura, ospakizun eta Euskaltzaindiaren eginkizun ororen plangintza, ibilpide eta eraketa hasi eta bururatu ditu, batzutan zuzenki eta gehienetan, Ekonomi, Biblioteka eta Argitarapenen eragileen eta administrarien laguntza eskergaz baliaturik. Batzordeen eta programa nagusien langintza ere, bertatik koordinatu da.

Jendearekiko kontsulta, itaun eta posta harremanak, egunetik egunera ugaltu dira, hor sartzen direlarik, egoera, euskararekiko ikerketa, normalizapen erakundetze eta beste sailkatu ezinezko puntu asko. Euskaltzaindiaren zeregin akademikoez, funtzionamenduez eta batzordeez, argibide ugari eman da, adibidez: bulegoetara eta Erriberako Bibliotekara, Irale, Habe eta beste zenbait eskola eta euskaltegitatik taldeak hurbildu dira, hizkuntzarekiko beraien atxikimendu eta jakin nahiak agertuz. Euskal Herritik, zein atzeritik etorritakoak ere, lan premia-tsua suposatzen dute Egoitzarentzat eta baita Ordezkaritzarentzat ere, azken hauei Arautegiko 34. artikulua egotzen bai die batipat eginkizun hau.

Ordezkaritzek beraien lan eta harreman zerbitzuetarako bulego erosoak dituzte, Donostian, Gasteizen eta Iruñean, bertako Foru Administrazioei esker.

Donostian, Ordezkaritza bulegoetz landa, Miramar Jauregian, bertako erakunde hartako patronatoak, solairu bat berriztatzen dihardu Euskaltzaindiaren zenbait lan programa kokatzeko, hala nola: *Orotariko Euskal Hiztegia*.

Egoitza berria

Bizkaiko Foru Diputazioak "Dragados y Construcciones" enpresari 225.645.198 pezetatari adjudikatu zizkion 1989.eko abenduaren 26an Euskaltzaindiaren egoitza berriaren lanak. 1990 amaitu berri den urtean berriztatze lanak abiada aski geldoan joan dira, bukaera urte erdi inguru atzeratuko delarik. Beraz, inaugurazioa 1991ko udazkenean izan daiteke.

Egoitza berriztatzearen zuzendaritza: Eduardo de Felipe eta Anton Agirre-goitia arkitektoek daramate. Akademi eta bulego solairuez gain, Biblioteka berriaren instalazioen ardura Azkue Bibliotekako zuzendaritzak eraman du, fonoteka kokatzeari, informatizapen beharrezinei, liburu, hemeroteca eta artxibo gordailuei, arreta berezia jarri zaiolarik. Herri Aginteekin sinatutako Hitzarmenaren ondorioz, Jarraipen Batzordeak hurbiletik begiratu dio egoitzaren arazo honi. Urriaren 3an erabateko planoak onartu dira, berriztatze lanei eguneroko jarraipen bat egiten zaielarik.

Solairu desberdinek altzari, argi eta gainontzeko instalapen guztien horniketa egiteko, zenbait bilera egin dira batean, orokorki, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Hizkuntza Politika Idazkaritza Nagusiak, Diputazioetako Kultura Diputatuak, arkitektoek eta Euskaltzaindiko Zuzendaritzakoek, proiektu bat burutuz. Ondoren, bost Herri Erakundeek parte hartuko dute egoitza berriaren barne horniketa osoan.

4.2. AZKUE BIBLIOTEKA

1. Egitura eta ibilpidea

Azken sei urte hauetan 37.389 aleren sarrera erregistratu da, urteroko Oroit-idazkaietan agertzen diren ekintza eta zerbitzuez landa. Hala eta guztiz ere ez da Bibliotekako lanarigoaren egitura aldatu, horrek 1991n Egoitza berrira toki aldaketa datorrenean azpiegitura arazoak ekarriko dituelarik beregan antolakizun moderno batez zerbitzuak mantentzea nahi baldin bada behintzat, bereziki informatizazioarena. Oraingoz, antolakizun berria eta toki aldaketa prestatzen joateko, Bibliotekako zuzendaritzak publikoari ixtea pentsatu zuen Euskaltzaindiko hileroko batzarrak 1989.eko abenduaren 29an onartu zuelarik. Biblioteka 1990.eko otsailaren 1ean itxi da, era horretara barne antolaketa lanak ugarituz, Oroit-idazki honetan kanporakiko ekintzak alboratu gabe. Biblioteka batzordea ez da urte honetan bildu, aurretiaz eginbeharrak zehaztu zituelarik.

2. Liburu eta aldizkarien sarrerak

Nahiz eta Biblioteka itxita egon, sarrerak ez dira eten 1990. urtean 5.919 ale sartu bai dira. Jarraian agertzen den koadroan ikus daiteke azken sei urteotako mugimendua:

| Urtea | Erosiak/harpidetaz | | Dohainik/trukez | | Guztira | |
|-------|--------------------|------------------|-----------------|------------------|---------|------------------|
| | aleak | balioa pezetetan | aleak | balioa pezetetan | aleak | balioa pezetetan |
| 1985 | 1.640 | | 3.516 | | 5.156 | |
| 1986 | 1.376 | | 4.682 | | 6.058 | |
| 1987 | 1.590 | 1.735.140 | 6.074 | 1.773.965 | 7.664 | 3.489.105 |
| 1988 | 753 | 1.448.938 | 4.675 | 1.819.635 | 5.428 | 3.268.573 |
| 1989 | 3.158 | 4.457.911 | 4.006 | 1.545.154 | 7.164 | 6.003.065 |
| 1990 | 1.032 | 2.485.199 | 4.887 | 3.206.283 | 5.919 | 5.691.482 |
| | 9.549 | | 27.840 | | 37.389 | |

Emaitza gestiogintza ongi burutua dela begibistakoa da, zeren eta sarrerren % 74a dohainik edo trukez, alegia kosturik gabe, izan bai da. Bakarrik % 26a erosketa edo harpidetzaz.

Erositako lanik garrantzitsuenak hauek lirateke:

Mikrofilmak:

- *Euzkadi* egunkariaren bilduma osoa.
- Leizarragaren lan osoaren lehen argitalpena (1571).
- Juan Carlos Guerraren bibliotekako bigarren zatia.
- Etcheberryren *Noelac* liburuaren lehen hiru argitalpenak eta *Eliçara erabilteco liburuaren* lehen argitalpena.
- Schuchardtek euskalariekin izandako gutuneria, Grazeko Unibertsitatek ekarria.

Grabaketak:

- Euskalkien ahoskerari buruzko Koldo Mitxelenarenak.
- Eresoinkak euskal idazleen biografiez grabatutako bideoak.
- Jose Antonio Arana Martija bibliotekariaren testuekin, Oñatiko ekintza-aren bideoa.

Liburu, eskuskribu:

- *Eusko Bibliografiaren* bilduma bi, Elkanoko Egoitza eta Gasteizko Ordezkaritzarako.
- *Herria* aldizkariaren zenbaki atzeratuak.
- A. Luis Villasanteren artxiboa (bigarren zatia).

– Gipuzkoako Diputazioaren eta Gipuzkoako eta Donostiako Aurrezki Kutxen argitalpen zahar zenbait.

– Eusebio Maria Azkueren eskuskribua, Lino Akesolo euskaltzain urgazleak emana.

Biblioteka bisitatu dute, besteak beste, George Kremnitz, Vienako Unibertsitateko irakasleak; Claudia Perlick, Berlingo Unibertsitatekoak; Geoffrey West, "British Library"koak; eta harremanetan sartu UNESCOko Zacharie Zachariev jaunarekin.

Truke zerbitzua munduko 120 unibertsitate eta kultur erakunderekin mantendu da, beraiengandik liburu baliotsu eta aldizkari garrantzitsuak jasoz.

3. Informatizazioa

Madrilgo Hezkuntza Ministeritzako sare informatiko proiektua, orain, Carmen Castilla anderea arduratzen dena, geroragorako utzi da. Egoitza berriaren informatizazio plangintzaz Eusko Jaurlaritzako Ginea jauna arduratu zen, baina Bibliotekari dagokionaz ez da erantzunik jaso. Euskal Herriko biblioteka sareen informatizazio proiektuaz, nahiz eta Kultura kontseilariordearekin harreman batzuk izan, ez da atera. Badirudi, Gobernu berriarengandik asmo hau Kultura Sailaren bidez gauzatuko dela.

Bien bitartean, Bibliotekako zuzendaritza eta lanarigoak, zenbait proiektu aztertu ditu, hots: hemengo erakunde garrantzitsu zenbaitek onartutako Dobis/Libis sistema; Cantabriako Unibertsitatean ongi ari den Sabini sistema, beste zenbait bibliotekatan ere erabilia; UZEIn aztertutako Macintosh ordenagailuen bidezko aukera; Baionako udal bibliotekan martxan dago Opsys sistema; azkenik, Eusko Jaurlaritzak, dirudienez, onartu behar omen duen VTLS sistema. Une honetan Gobernuaren erabakiaren zain dago Azkue Biblioteka.

Bibliotekako langilegoak, ekainean, "Gesco Universidad" delakoarekin informatikako ikastaro labur bat egin du.

4. Fonoteka

Egoitza berrian zerbitzu berri hau jartzekoa da. Madrilgo "Centro Reina Sofia" fonoteka bisitatu da martxoaren 16an. Sonyren DAT mikrozintei buruzko informazioa lortuz. Philips, Gispert eta beste grabaketa eta gordetze sistema batzuk estudiatu dira, oraingoz, erabakirik hartu ez delarik, zeren eta era modernoago eta luzapen gehiagokoak ezagutzen bai dira. Dena dela, egoitza berriaren arkitekto zuzendariarekin, zenbait aldiz hitz egin da fonotekaren kokatze, gordailu, grabaketa eta entzunaldien laborategia eta abar finkatzeko.

5. Artxibo lanak

Biblioteka ixtearen helburuetariko bat egoitza berrira artxiboa aldatzeaz batera, antolatzea zen. Arreta bereziaz hartu da eginkizun hau Euskaltzaindiaren

artxibo historikoa, neurri haundi batez, sailkatu delarik. Berau, espezializaturiko langileekin katalogatu eta informatizatu beharko da. Oraingo langilegoa Merkataritza Ganbaran, Irargik, martxoan emandako artxibistika ikastaro batean parte hartu du. Arrasateko Jose Letona jaunaren artxiboko biblioteka ordenatu, sailkatu eta katalogatu da.

6. Erakusketak

Maiatzean, Ondarroan, Txomin Agirreri eskeinitako erakusketa antolatzen lagunduz gain, biblioteka berak bi erakusketa nagusi prestatu ditu, dagozkien katalogo eta guzti:

— Irailaren 26tik urriaren 7rarte, III. Onomastika Jardunaldiekin batera, Lizarran, Nafarroako kartografiaz. Materialik gehientsuena akademi erakundearena berea izan da, beste batzuk, Madrilgo "Biblioteca Nacional"ari erosi berriak eta Francisco Beruete jaunak utzitako batzuk.

— Bere jaiotzaren III. mendeurrenkari, Larramendiren lanen erakusketa, Azkue Bibliotekan dauden ehundik gora lanez eta "Equipo K6" delakoaren laguntzarekin egin da. Erakusketa ibiltari hau, urriaren 29tik 31rarte, Donostiako "Biblioteca del Doctor Camino"n egon da; azaroaren 6tik 9rarte, Euskal Herriko Unibertsitatean, Gasteizen; azaroaren 26tik 29rarte, Deustuko Unibertsitatean, Bilbon; eta abenduaren 14tik 23rarte, Andoaingo Kultur Etxean.



Ezkerretatik eskumatara: J. Haristchelhar euskaltzainburua, Joseba Arregi Euskal Komunitate Autonomoko kultura kontseilaria, Carlos Sanz Díez de Ure Andoaingo alkatea, Mari Karmen Garmendia E.K.A. Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia eta J.A. Arana Martija diruzaina.

1991.eko otsailaren 8tik apirilaren 14rarte, Londresko "British Library"n, Bonaparteren omenez egingo den erakusketaren prestaketa hasia da jadanik.

7. Bestelakoak

Azkue Biblioteka arduratu da Gabonetako zorion txartelen prestaketa eta argitalpenaz.

Maiatzaren 3an, sute bat izan da Azkue Bibliotekan, zorionez kearen kalteak besterik ez direlarik suertatu. Aseguru etxeak ordaindu ditu kalte horiek.

4.3. ARGITARAPENAK

Erakunde sail honek azpiatal bi dauzka, hots:

4.3.1. Argitarapenen Batzordea

4.3.2. Argitarapenen banaketa zerbitzua

4.3.1. Argitarapenen Zerbitzua

Euskaltzaindiak, 1990. urtean, Batzorde honen ardurapean, hurrengo liburukiok argitaratu ditu, alegia:

1. *Euskera* agerkaria (1989, 2). Ibon Sarasola Euskaltzaindian sartzea, "Juan Antonio Ubillosen II. mendeurrena". "Wentworth Webster-en Basque Legends". "Euskal herria Oihenarten atsotitz eta erretrauetan". "Oihenart-en atsotitz eta erretrauez nota tipia". "Note a propos de quelques points de typologie des liquides et vibrantes en Altaïque". "Euskara Konstituziotik". "Erdal adjetibo erreferentzialetarako euskal ordainak". "Como gaztelerazko juntagailuarekiko interferentzian sarturiko atribuzioaren esparruko egiturak". "Sobre el rema del vasco". "En la presentación de *toponimia alavesa, seguido de mortuorios o despoblados y pueblos alaveses*". "Los Arcos Nafarroako hiriaren izena euskaraz Urantzia?". "Los Arcos-en euskal izena Urantzia ote?".


2. *Euskera* agerkaria (1990, 1). Jose Antonio Arana Martija Euskaltzaindian sartzea. Euskaltzaindiak Herri Aginteeekin egindako hitzarmena. "Antonio de Trueba eta Aita Jose Maria Estefaniari omenaldia". "Jose Agerre eta Migel Jabier Urmenetari omenaldia". "Ohar bat edo beste literaturaren inguruan". "Sonetoaz bi argibide". "Tonu-multzoak gramatikan". "Sierra Cantabria/Sierra Toloño". "La question du prefixe nomino-participial m-en kartvele et en Basque". "Euskaraz potentzialitatea adierazteko bi bideen arteko erabilerari buruzko azterketa konparatiboa". "Euskaleñiaren Yakintza 3. argitarapena".

3. *Euskera* agerkaria (1990, 2). "Novia de Salcedo, Miguel Arruza eta Gabriel Manterolaren mendeurrenak". "Gregorio Arrueren heriotzeko mendeurrena". "Oroitzapen purruxken purruxkak". "Botanika lexikoa Eibarren", "Tripot, Lehatxun, ez adiorik: Euskal Atlasaren bilketaren informatizatzeko bidean epan-txu zenbait". "Erdal hitzen mailegatzea". "Gaskoniako okzitanoarengandikako maileguak euskaraz". "Xenpelar saria". "Joannes Leizarraga: *Testamentu Berria, Kalendarera, ABC* liburukien faksimilezko berrargitarapena".

4. Euskararen lekukoak 16. zenbakiduna: *urteko igande guzietarako prediku laburrak*. Joakin Lizarraga, Elkanokoa. Frantzizko Ondarrak paratua. Orain arte inoiz argitaratu gabekoa.

5. Euskararen Lekukoak 17. zenbakiduna: *Jesu Christoren Evangelio Saindua*. Ioannes de Haraneder. Patxi Altunak paratua. Orain arte inoiz argitaratu gabekoa.

6. *Onomasticon Vasconiae 6: Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Iza*. Jose Maria Jimeno Juriok prestatua.



Itzako zendea eta beronen barrutiko herrixkak

7. *Euskal Gramatika. Lehen urratsak III (lokailuak)*. Euskaltzaindiko Gramatika batzordeak paratua. Liburuki honetan lokailuak aztertzen dira.

8. *Iesus Christ gure Jaunaren Testamentu Berria*. Ioannes Leizarraga, fak-simil erara berrargitaratua; berau Leizarragak 1571.ean egin zuenaren agerpen zehatza. Kultur Ministeritzaren laguntzarekin argitaratua.

9. *Cancionero Popular Vasco I-II*. Berrargitarapena. Resurrección M. de Azkue. Iberdueroren laguntzarekin argitaratua.

10. *Argitarapenen Katalogoa 1990-1991*. Euskaltzaindiak orain arte kaleratu dituen lanen zehaztasunak dakartzan liburukia.

11. *Euskaltzaindiaren Oroit-idazkia (1989)*. Erakundeak 1989. urtean buruturiko egintza, lanen zehaztasunak eta azalpenak dakartzan argitarapena.

4.3.2. Argitarapenen Banaketa

Zerbitzu honek, Euskera Agerkariari dagokionez abonatuaren kopurua 450 batekin mantentzen du, urteko bi zenbaki jasoaz. Beste 103 dira trukea mantentzen dutenak; hauetarik 30, Euskaltzaindiak argitaratzen duen guztia jasotzen dute: Erakunde, Unibertsitate, Hizkuntz-akademia, egunkari eta abar. Eskariak gehituz doaz, batez ere dohainekoak, atzeritik eta Euskal Herritik: Udal-liburutegi, Giza-Kultur elkarte, ikastetxe eta abar.

1990. urtean 13763 ale saldu dira. Dohain edo trukean 3857 ale banatu ditu Zerbitzuak: aurkezpenetan, euskaltzainei, Akademia barneko batzordekideei, langileei eta abar.

Zerbitzu honek sortuz geroztik izan duen azpiegiturarik ahulena du gaur egun, igorketak puntualki eta azkar egiteko. Kontuan hartu behar da argitalpenak asko gehiago daudela eta ez dagoela atzean gelditu denarekin parekatzerik.

Ohienez, Durangon, abenduaren 6, 7, 8 eta 9an egindako XXV. Euskal Liburu Azoka Nagusian izan da Euskaltzaindiaren zerbitzu hau. Bertara 932 liburuki, 108 argitalpen tituluri dagozkienak eramanez ditu; hauez gain *Eusko Gogo*a al-



Eskumatatik ezkerretara: J. A. Arana Martija, P. Ondarra, P. Altuna, J. Haritschelhar euskaltzainburua, P. Salaburu, E. Knörr eta R. Badiola Uriarte.

dizkariaren 94 ale eta Azkue Bibliotekak prestatutako beste 75 erakusketa katalogo. Egun horietarako argitaratua izan da *Euskaltzaindiaren Argitalpen Katalogoaren* 300 bat ale eta 1989.eko *Oroit-idazkiaren* beste 87 aleren banaketa ere egin da. Azken hau, Akademiarekin hurbiltasun edo sentikortasunik ageri dutenei bereziki. Urtez-urte bi standetan Euskaltzaindiak argitalpenetan duen edukin osoa aurkezten da. Egun horietan burututako lana egoitzako lankideen laguntza esker-gaz baliaturik, egia da.

LIBER90: Barcelonan, ekainaren 26tik 30 bitartean, "Palau de la Metalurgia" deritzan Erakustazokan egin da Erakusketa "Fira de Barcelona" k antolaturik eta hurrengo hauen babesarekin: Federación de Gremios de Editores de España; Ministerio de Cultura; Dirección General del Libro y Bibliotecas; Instituto Español de Comercio Exterior; Generalitat de Catalunya - Departament de Cultura; Ajuntament de Barcelona; Quinto Centenario; Gremi d'Editors de Catalunya. Eusko Jaurlaritzak, EUSKADI Stand bakarra jarri du. Erakusketa Nagusi hortara joateko gonbitea, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Turismo Sailak luzatu dio Euskaltzaindiari eta bertan, Eusko Jaurlaritza, Legebiltzarra, Foru Diputazioak, Euskal herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, Eusko Ikaskuntza eta Euskal Editoreen Elkartearekin batera partaide izan da. Halako banaketaz Euskaltzaindiak 42 liburu-kiz hornitutako 31 argitalpen titulu eraman ditu, hauez gain, bertan banatzeko 100 *Argitalpen katalogo*. 1989.eko *Oroit-idazkia* eta aurkeztutako argitalpen berrien edobereziatariko batzu Standeko arduradunaren esku utziz, aparteko eskaintzaren bati erantzuteko. Zerbitzu honen arduradun den Rosa M. Arza eta Nerea Altuna Azkue Bibliotekako lankidea izan dira bertan bi egunez Euskaltzaindiarekiko erantzule.

4.4. ITZULPEN ETA KONTSULTA ZERBITZUA

1990. urtean zenbait itzulpen burutu ditu Euskaltzaindiko Argitarapenen eragileak. Eginiko itzulpen behinenak hurrengo erara sailkatu dira, alegia:

Erakundeak:

Gobernu Zentrala (INE), Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Eusko Trenbideak, Gipuzkoako Foru Diputazioa, Bizkaiko Foru Diputazioa, Bilbo Haundiko Uren Partzuergoa/Consortio de Aguas del Gran Bilbao, Bilboko Nazioarteko Erakustazoka/Feria Internacional de Muestras de Bilbao, Bilboko Apezpikutegia, Telefónica, Cadem, Bizkaiko Ingeniariaren Kolegio Ofiziala, Osakidetza eta Audiencia Territorial de Bilbao.

Banku eta Aurrezki Kutxak:

Banco Bilbao Vizcaya, Banco Exterior de España, Lankide Aurrezki Kutxa eta Bilbao Bizkaia Kutxa.

Udalak:

Bilbo, Iruñea, Getxo, Barakaldo, Basauri, Durango eta Andoain.

Publizitate Enpresak:

Aurman, Europatent, Hungria-Patentes eta Estudios Arriaga.

Beste Zenbait Enpresa eta partikularrak:

Iberduero, Eroski, Gurutze Gorria/Cruz Roja, DYA, Gráficas Elkar Sociedad Cooperativa, Fotocomposición Rali, S.A, Unicef, Rótulos Roura, Joseba Euba eta Ramón María Trojaola Zapirain.

Aldi berean Zerbitzu honek, kontsulta modura, hurrengo gaioi erantzuna eman izan die, bai telefonoz eta bai idatziz eta elkarrizketen bidez, Euskaltzaindiaren Egoitzan, hots: euskal gramatikarekiko zenbait puntu, hiztegegintza, euskara ikasi, landu eta irakasteko metodogintza, bibliografia, itzulpen teknikok alfabetatzerako orientabideak, mailakaturiko irakurketa, euskarazko titulua eskuratzeko orientabide, bibliografi eta ariketen berri, Diputazio eta udal itzultzaileen zalan-tzak argitzea, zenbait oposaketetarako hizkuntzari dagokiolarik argibideak eskaintzea, buruturiko zenbait itzulpenen orrazketa eta zuzentzea eta abar.

Bestalde, ordezkartzei ere eskua bota die, beraietara jo dutenen kontsultak argitu eta orientabideak eskainirik, terminologia arazoak bateratzeko, bai itzulpenetan eta baita erizpenetan.

4.5. ETSAMINAK

Arlo honetarako bereziki zegoen batzordea suntsituta dagoenez, orain egiten den lana, lanpostu edo beka deialdi zehaztu batzuetara mugatzen da. Horregatik, Zuzendaritza edo bulegotik zuzenean eramaten da euskararen udal zerbitzu edo itzultzaileen lanpostuetarako denean eta dagokion batzorde bati atxikigarriak baldin badira, batzorde horrekin kontaturik.

Amaitu berri den urtean, Euskaltzaindia jaun hauek ordezkatu dute epaimahaietan:

- Zumarragako Udalean, euskara zerbitzu arduraduna hautatzeko, Xabier Mendiguren;
- Galdakaoko Udalean, lanpostu berberarako, Rikardo Badiola;
- Debako Udalean, Xabier Mendiguren;
- Basauriko Udalean, Rikardo Badiola;
- Dimako udal itzultzailea hautatzeko, Rikardo Badiola;
- Basauriko Udalak babestu eta antolatutako, bertoko euskalki edo herri hizkeraren azterketa egingo duen bekaduna hautatzeko: Luis Villasante;
- Arrasateko Udalak babestu eta antolatutako, herriko toponimia aztertzeko egingo duen bekaduna hautatzeko: Endrike Knörr;
- Bizkaiko Irakaslego Eskolan, bizkaieraren gaitasuna frogatzeko epaimahikide: Juan Luis Goikoetxea.

5. Ekonomia

5.1. DIRUZAINITZA

Iaz hasitako bidetik, aurten ere, Euskaltzaindiaren Diruegitamua kudeatzeko Aurrekontu Arau egokitua onartu zen urte hasieran eta Arau horren baldintzen arabera erabili izan dira Harri Aginte, salmenta eta bestelako zerbitzuetik jaso den diru guztia.

Urteko ihardueran, Orotariko Euskal Hiztegia eta Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa egitasmoei kokagune egoki bat lortzeko asmotan aritu da Diruzaintza, oraingoz behin behinekoak bakarrik aurkitu direlarik.

Bestalde, egitasmo horiek izan dituzten ordenagailu berriztatze beharra konpondu dio Orotariko Euskal Hiztegiari, eta hala beharrezko horniketa egin Euskal Herriko Atlasari.

Datorren urteko Aurrekontu eta diru-iturriei buruz, Herri Aginte eta Euskaltzaindiak 1989.eko urriaren 7an Oñatin sinaturiko Hitzarmenaren ildotik, urriaren 4, 22, 31n eta azaroaren 5 eta 23an, Batzorde Teknikoak eta Jarraipen Batzordeak egindako bileretan Aurrekontuaren azterketa, zehazketa eta onartzea burutu da. Ondorioz, Euskal Herriko Herri Aginteek eta Euskaltzaindiak aipatu Hitzarmenaren gehigarri bat sinatzea erabaki dute, gehigarri horretan zenbait atal eguneratzen direlarik.

Ildo berean, martxoaren 26an gure diruzaina eta ekonomi eragilea Hezkuntza Ministeritzako Unibertsitateetarako Idazkaritzako Paloma de la Peña anderearekin elkarriketatu dira. Bertan 1989.eko ekintzen laburpena ematen diren Oroit Idazkia eskaini zaio eta 1990 urteko ekintza nagusien aipamena egin.

Eginkizun duen beste ekintza bati ere eman dio hasiera aurten Euskaltzaindiak: bere Ondarearen zenbatekotze lanari, hain zuzen. Horretarako "Galtier, S.A." enpresaren esku utzi du, egoitza, ordezkaritza, nahiz biltegian diren ondarearen balorazioa egitea. Ondoren, Bibliotekakoari ekingo zaio.

1990. URTEKO BALANTZEA

| Sarrerak | | Ordainketak | |
|-------------------------------|-------------|--------------------------------|-------------|
| 3. Salmentak | 15.970.990 | 1. Zuzendaritza eta langilegoa | 63.286.600 |
| 4. Transferentzia arruntak | 179.415.276 | 2. Funtzionamendu gastuak | 49.765.537 |
| 5. Interesak | 998.920 | 3. Finantz gastuak | 1.784.288 |
| 7. Diruegitamu itxiak | 33.511.901 | 4. Transferentzia arruntak | 91.493.059 |
| 8. Finantz aktiboen aldaketak | 6.413 | 6. Inbertsioak | 1.902.703 |
| 9. Finantz pasiboen aldaketak | — | 8. Finantz aktiboen aldaketak | 598.418 |
| | | 9. Finantz pasiboen aldaketak | 750.000 |
| | | 0. Izakinak | 20.322.895 |
| | 229.903.500 | | 229.903.500 |

6. Aurkitegia

EGOITZA

BULEGOAK

Elkano, 5-1.
48011 BILBO
Telf. 94-4158155
Fax 94-4158144
Arduraduna: Jose Luis Lizundia

AZKUE BIBLIOTEKA

Ribera, 6
48005 BILBO
Telf. 94-4152745
Fax 94-4150051
Arduraduna: Jose Antonio Arana

GORDAILUA

Bilbo-Donostia errepidea,z/g.4,5 km.
Edif. SAGA - 1. solairua
48004 ETXEBARRI (Bizkaia)
Telf. 94-4406258
Arduraduna: Rosa Mari Arza

ORDEZKARITZAK

ARABA

San Antonio, 41
01005 GASTEIZ
Telf. 945-233648
Fax 945-233940
Ordezkarria: Enrique Knörr

NAFARROA

Conde Oliveto,2-2.
31002 IRUÑEA
Telf. 948-223471
Fax 948-210713
Ordezkarria: Jose Maria Satrustegi

GIPUZKOA

Hernani, 15
20004 DONOSTIA
Telf. 943-428050
Fax 943-428365
Ordezkarria: Juan Mari Lekuona

IPARRALDEA

37, rue Pannecau
64100 BAIONA
Telf. 07-33-59256426
Ordezkarria: Pierre Charritton



EKIN ET



YARAI

